

# Urtekaria



A G I R R E

H O R T Z K L I N I K A

*Urte berri on!*

Ibargarai 32, beheka BERGARA | [agirrehortzklínika@gmail.com](mailto:agirrehortzklínika@gmail.com) | Tel.: 943 76 00 23 | Mug.: 665 72.36 28





# Zorionak eta urte berri on!



943 06 18 95

Kataide poligonoa z/g  
**Arrasate**



## AURKIBIDEA

## URTEKARIA DEBAGOIENA 2024

## Urtea hilabetez hilabete

Urtarrila	4
Otsaila	6
Martxo	8
Apirila	10
Maiatza	12
Ekaina	14
Uztaila	16
Abuztua	18
Iraila	20
Urria	22
Azaroa	24
Abendua	26

## Protagonistak

Gizartea 2024	30
Ekonomia 2024	32
Kirola 2024	34
Kultura 2024	36

## Urteko pozak eta penak

	38
--	----

## EDITORIALA

## Kazetaritzaren berezko ezaugarriei eutsi

Goienak erabaki du X sare sozialetik –lehengo Twitter– irtetea eta, ondorioz, albisterik ez zabaltzea bide horretatik. Hausnarke-ta aspaldi hasi zuen, Tokikomen baitan, baina higie-neurri bat da maltzurkeriaz manipulaturako gune horretan ez publikatzea. Arrazoa da ez genukeela nahi gu ere hor gaudelako beste batzuk bultzatzea.

Beste sare sozial batzuk badarabiltzagu, baina neurtuko ditugu gehiago. Goienak argitaratzen dituen edukiak zabaltzeko behar ditugu gureak ez diren lekuak, baina gure direnetan jarriko dugu indarra: dagoeneko ditugun eta sortuko ditugun berrietan. Jakitun ginen: sare sozial horien atzean dauden jabeen helburu eta interesak eta Goienarenak mutur banatan daude. Goienak erabili egin ditu eta erabiliko ditu sareok; haiek Goiena erabiliko dute, baina saiatuko gara neurria gu jartzen. X-n zero eduki sartuko dugu, momentuz, bereziki, azken boladan hartu duen bideagatik, X-k kalte egiten diolako sinesgarritasunari, informazio kontrastatuari eta egiaren bilaketari. Hau da, Goienaren egiteko nagusiari: kazetaritzari. Kalte larriak: algoritmoen erabilera maltzurra, gezurra, erabileren alderdikoa, hala moduzko publikizitatea, hase-rraren erakusleioa eta eragilea, eskuin muturraren bozgorailua... Kazetaritzaren berezko ezaugarriekin, euskararekin eta gertuko komunitatearekin bat datozen balioekin hobeto lotzen den alternatiba landu dugu. Gonbidatuko dugu komunitatea parte hartzera. Anai-arreba ditugun euskarazko toki hedabideekin batera hasiko gara erabiltzen aurki.

Egungoa ez da arorik eta egoerarik samurrena ez euskararendako eta ezta kazetaritzarendako ere. Eta testuinguru zail horri aurre egitea tokatzen zaie Goiena Komunikazio Taldearen moduko erakundeek; hau da, euskara elkarteak, Udalak eta lan-bazkideak –kazetariak gehienak– batzen dituen kooperatibari, batetik; baina baita, oro har, euskaraz eta euskararen alde dharduten erakunde, elkarte eta taldeei. Euskararen kontrako mezuak, erabaki judizialak, erabileran *inpasea* edo atzeraldia Debagoiena moduko eremu euskaldunetan...

## Berrasmatu, moldatu, eraginkor izan

Egoera horri aurre egiteko eta jokatzeko moduak arautzeko behar dira tresnak, neurriak, legeak... nork bere egiteko eta arduratik erantzun egokiak emateko. Goiena, tokiko beste euskarazko hedabideekin batera, badoa urratsak egiten. Euskaltzaleen Topagunea bezala: Taupa Euskaltzaleen Mugimendua izango da aurrerantzean. Berriki egindako aurkezpenean –Debagoieneko ordezkari zabalarekin– adierazi zuten moduan, euskarak eta Euskal Herriak jauzi bat behar dutelako, euskararen erabilera biderkatzeko baldintzak sortuz, datorrena erabileraren aroa izan dadin. Goienak hor jarriko du aletxo: euskarara ahalik eta pertsona gehien erakarriz, periferiekin kontatuz eta denok komunitate bera osatzeko proiektu erakargarria sortuz. Berrasmatu, moldatu, eraginkor izan; euskaldunak, euskaltzaleak eta euskaldun ez direnak ere kontuan hartu; zintzo jokatu, testuinguru irakurri, euskal komunitatea handitzeko ahaleginean jarraitu. Lana da gure errezeta. Penak eta trapu zaharrak, etxe barrurako.

## EZ KAZETARITZAK ETA EZTA EUSKARAK ERE EZ DITUZTE ARO ETA EGOERA SAMURRENAK BIZI

## 25 urte gertuko komunitatearekin

Lan munduan ere ari dira euskararen alde lanean, eta aurten, esaterako, Bikain euskararen kalitate-ziurtagiria jaso dute EAEko 45 enpresak, eta horietatik herenak Debagoienekoak dira. Horretan ere eskualdea aurrean. Enpresa horien artean badira Ulma Taldekoak ere. Oñatiko kooperatiba taldeak abenduan egin du ekitaldi berezia Gandiaga Topagunean, lantegietan euskara plana ezarri zuteneko 20. urteurrena ospatzeko.

Argi-ilunekin badoa urtea, eta borobila izango den 2025ari egingo diogu ondoetorria egun gutxi barru. Borobila, besteak beste, 25 urte beteko dituelako Goienak. Gertuko komunitatearekin ospatzeko baliatu nahi dugu. Urratsak, elkarrekin, egiten segitzeko eta proiektuak gauzatzeko. Euskaraldiaren urtea ere izango da. Aktibaziorako daukagun tresnarik onena. Ilusioz egingo dugu bat. Urte berri on euskarari, kazetaritzari eta gertuko komunitateari!

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

## Lehendakaria

Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube, Larraitz Zeberio.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.

**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.

**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

## Erredakzioa

Jokin Bereziartua, Iñigo Barrena, Imanol Beloki, Gontzal Belategi, Hasier Larrea, Sara Lanz, Idoia Aranbarri, Xabier Urtzelai, Aitziber Aranburuzabala, Eneko Azurmendi, Oihana Elortza, Mirari Altube, Amaia Ramirez, Amaia Txintxurreta, Larraitz Zeberio.

## Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martínez de Arenaza.

## Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martín, Amaia Mundiñano, Naroa Inza.

## Argazkiak

Erredakzioa, Aritz Gordo, Sergio Mateo / Sportmedia, Emai Debagoiena, GoldenTrailSeries / Zegama Aizkorri / Mathis Decroux, Daniel Meumann / Sportmedia, Gipuzkoako Futbol Federazioa, Tu Lankide, Pello Agirrezabal, Joxefe Diaz de Tuesta, Kutxa Fundazioa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gipuzkoako Bertsolari Elkarte, Jardun, Wikipedia.

## Administrazioa

Ane Bereziabar, Iratxe Bengoa, Leire Etxebarria, Leire Iria.

## HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

## PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
publi@goiena.eus

## EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

## Lege Gordailua:

SS-965/2014  
ISSN: 2174-369X  
Tirada: 18.550 ale



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

## LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala




Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Honako urtekari honen edizioa abenduaren 20an itxi du Goienak.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



## ELGETA

**Hitzarmena: Fagor Taldea eta Ixotzen**

Hilaren 9an hitzarmena sinatu zuten Fagor Taldeak eta Elgetako Ixotzen energia berriztagarrien komunitateak. Fagorrek 50.000 euroko ekarpena egin zion Ixotzeni eta bazkide laguntzaile ere egin zen.

## OÑATI

**Xabier Ugarte musikariaren heriotza**

Hilaren 20an hil zen, 70 urte zituela, Xabier Ugarte musikari eta euskaltzale oñatiarra. Omenaldi xume gisa, abesti batzuk jo zituzten tanatorioan Bixente Martinezek, Amaia Azpiazuk eta Iraia Aizpuruk.

## BERGARA

**Agurne Barruso Kudeatzailea**

Hilaren 16an jakinarazi zuten Agurne Barruso bergararrak hartuko ziola lekukoa Jose Luis Sukiari Ikastolen Elkarteko zuzendari moduan. "Ilusioz eta motibatuta" hartu zuen ardura berria.



## ARAMAIO

**Txotx denboraldiaren hasiera**

Txotx denboraldia hilaren 18an hasi zen, Aramaioko Iturrietan. Arabako sagardotegi denboraldiaren hasiera ofiziala Kuartangon izan arren, Aramaion lagunartean ospatu zuten sagardo berriaren etorrera.



## ELGETA

**Energiaren Puntua bulegoaren aurkezpena**

Debagoiena 2030 ekimenak Elgetan aurkeztu zuen Energiaren Puntua bulegoa, hilaren 24an. Energia-komunitateen inguruan herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitzeko eta sortzen ari diren komunitateei sostengua eta bide-laguntza eskaintzeko sortu zuten bulegoa; argibide gehiago, [energiarenpuntua.eus](http://energiarenpuntua.eus) webgunean.



## BERGARA

**Udalbiltzaren batzar orokorra Bergaran**

Udalbiltzak batzar orokorra egin zuen urtarrilaren 20an Seminari-xoan; etorkizuneko lehenitasuna burujabetzaren erronkari eustea izango dela azpimarratu zuten. Bergarako alkate Gorka Artolak konpromisoa hartu zuen Bergara ere Udalbiltzan sartzeko: "Positiboa da Udalbiltzak eskaini ahal diguna, eta alderantziz".



## ARRASATE

**Zarzuclaren itzulera berezia, bost urteko etenaren ostean**

Bost urteko etenaren ostean, hilaren 20an itzuli ziren Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko kideak zarzuclarekin. *Antologia de la zarzuela* obrarekin elkartearen ibilbidea laburtzen duen ikuski-zuna eskaini zuten, lepo bete zen Amaia antzokian. Cristina Cubillo eta Edu Arzamendi lehenengoz aritu ziren zuzendari.



## ARRASATE

**Diputatu nagusiaren bisita Bidean Heziketa Zentro Okupazionalera**

Gipuzkoako diputatu nagusi Eider Mendozak Arrasateko Kataide industrialdean dagoen Bidean Heziketa Zentro Okupazionala bisitatu zuen hilaren 22an. 2017an Caritasen ekimenez ireki zituen ateak bazterkeria egoeran dauden pertsonei gizar-teratzen eta laneratzen laguntzea helburu duen zentroak.

**Hemen**  
garbiketak  
Ura bezain garbia

**URTE BERRI ON!**

Eskoriatza

T.- 943 71 48 45

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)





**ARETXABAETA****Huhezinema jaialdiaren 17. aldia**

Urtarrilaren 24an, 25ean eta 26an egin zuten Huhezinema jaialdia, eta hilaren 26an egindako sari banaketa ekitaldian Itziar Leemansen *Ximinoa* film laburrak irabazi zuten sari nagusia. 81 lan aurkeztu zituzten.

**DEBAGOIENA****14 edukiontzi erre izanaren salaketa**

Mankomunitateko arduradunek salatu zuten 2023ko abenduaren 3tik 2024ko urtarrilaren 3ra Arrasaten eta Aretxabaletan hamalau edukiontzi "nahita" erre zituztela. 12.548 euroko kostu ekonomikoa eragin zuten.

**ARETXABAETA****Ainara Urrutia** Lasterkaria

Euskal Mendi Federazioak urtarrilean jakinarazi zuen Ainara Urrutia aretxabaletarra izango zela selekzioko hautatzaile berria. "Ilusio handiz eta lanerako gogotsu" hartu zuen kargu berria.

**ARRASATE****Julen Ribas** Komikigilea


Hilaren 19an aurkeztu zuten Yurre Ugartek idatzi eta Julen Ribas arrasatearrak marraztu zuen *Iris XXII* komikia. Apokalipsi baten osteko gizarte berrian du oinarri lanak.

**DEBAGOIENA****Pentsiodunen aldarrikapenak plazara**

Urte berriarekin batera, seigarren urtez ekin zioten pentsiodunek aldarrikapenak haizatzerari. "Sei urte hauetan lortu dugu agenda politikoan egotea, albistetan agertzea, gure aldarrikapenez hitz egitea eta haiek aztertu eta onartuak izatea" adierazi zuten. Urtean zehar hainbat aldarrikapen ekimen burutu dituzte.

**ARAMAIO****600 sinadura inguru parke eolikoaren aurka**

600 herritarren baino gehiagoren babesa jaso zuen Aramaioko lurretan egin gura duten Itsaraz parke eolikoaren aurrean desadostasuna agertzeko Udalak eta Aramaixo Bizirik taldeak martxan jarritako sinadura bilketak. *Ez gaude ados* ekimenaren baitan egin zuten zuten ekimena.

**BERGARA****Gau bakarrean kalteak 100 bat autotan**

Urtarrilaren 19tik 20rako gauean 100 bat autotan kalteak eragin zituzten. Ertzaintzaren arabera, ibilgailu gehienetan espaloi aldeko ispilua agertu zen apurtuta edo kaltetuta. Erasoak gertatu eta egun gutxira identifikatu zuten kalteak eragin zituen norbanakoa; Bergarako instrukzioko eta lehen auzialdiko epaitegian deklaratu zuten.

**ARETXABAETA****Senegalera laguntza bidaltzeko ekimena Lanbide Eskolan**

Aretxabaletako Lanbide Eskolako ikasleek ekintza publikoa egin zuten hilaren 12an Herriko Plazan, Senegalen lanean diharduen Yakar elkarteari laguntzeko. Hiru ume senegaldarri hiru aukerak aurkeztu zituzten: elektrifikatu bidaltzeko, eskolako hainbat alorretako ikasle aritu ziren buru-belarri lanean.

**OÑATI****Nikolas Segurola fraide eta artzainari azken agurra**

Abenduaren 30ean hil zen Nikolas Segurola, 84 urterekin, eta urtarrilaren 3an azken agurra egin zioten Arantzazun frantziskotar fraide, artzain eta bertso-lariari. Erakundeetako ordezkari, fraidez, senitartekoz eta lagunez bete zen eliza, "umore onekoa eta guztien laguna" zena agurtzeko.

**Alberto Gorosabel Mendizabal eta Andrea Gorosabel Badiola doktoreak**

RPS: 10/24

943 76 56 88 • 618 95 90 17  
Fraiskozi 5A, 1-D. BERGARA  
© clinicagorosabel

[www.gorosabeldental.com](http://www.gorosabeldental.com)

- Ortodontzia: tradizionala eta ikusezina. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Estetika eta hortzen zurrutzea TEKNIKA BEREZIAREKIN.
- ESKANER DIGITALA diagnostiko zehatzak egiteko.
- AHO eta INPLANTEEN KIRURGIA punta-puntako teknologiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- Ezpainen estetika eta aurpegiko zimurrak betetzeko tratamenduak (azido hialuronikoa).

*Urte berri on!*

**1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENOI!**



## ARRASATE

**'Foto Laso'-ren aurkezpena**

Arrasate Zientzia Elkarteak eta Iban del Campo zinema-zuzendariak elkarlanean ondu zuten ikus-entzunezkoaren aurkezpena egin zuten Amaia antzokian, eta harrera bikaina izan zuen herritarren artean.

## ESKORIATZA

**'Axtroki' liburuaren aurkezpena**

Aranzadi Zientzia Elkarteak *Axtroki* liburua aurkeztu zuen Ibarraundi museoko aretoan. Gainera, Xabier Peñalver historiaurrean adituak *La Edad de Hierro en Gipuzkoa y su entorno territorial* hitzaldia egin zuen.

## ANTZUOLA

**Ibai Larrea** Mendi korrikalaria

Ibai Larreak La Sportiva mendi taldearekin kontratua sinatu zuen datozen bi urteetarako. Hasiera batean, hitzarmena 2025eko abendura arte da, baina luzatzeko aukerarekin.



## ARRASATE

**Behargin baten heriotza**

54 urteko langile bat hil zen Santa Teresa auzoko igogailuetako baten lanean ari zela. Gertatutako ezbeharraren ondorioz, Arrasateko Udalak lan-baldintzen gainean hausnartzea eskatu zuen.



## ARRASATE

**Atxilotu bat drogen aurkako operazio batean**

Guardia Zibilak pertsona bat atxilotu zuen Arrasaten, drogen aurkako operazio batean. Arabako Guardia Zibilaren Komandantziak eta Madrilgo Informazio Unitate Zentralak Trinitarios izeneko taldearen aurka eginiko operazio bat izan zen, eta, Arrasaten ez zik, Agurainen eta Gasteizen ere egin zituzten atxilotetak.



## ANTZUOLA

**Giza katea Irimoko eolikoen kontra**

Otsailaren 25ean jendetza batu zen Antzuolako kaleetan, Cilda Energy SLU enpresak Meakan eta Irimon egin nahi duen makro-proiektua salatuz. Meaka-Irimo herri plataformak antolatuta, herriko kaleetan zehar, Irimon ezarri nahi dituzten haize-erroten tamaina irudikatu zuten giza kate baten bitartez.



## LEINTZ GATZAGA

**Eugenio Otsoa oroitu zuten, heriotzaren urteurrean**

Urtebete igaro zen Eugenio Otsoa hil zela, eta, haren heriotzaren lehen urteurrean oroitzeko, ekitaldi xumea egin zioten gatzagarrek. Jose Mari Velez de Mendizabal historiazaleak *Leintz Gatzaga bere historian* izenburupean hitzaldia egin zuen eta Otsoaren gaineko erakusketa txiki bat prestatu zuten.

## ARRASATE

**Udalak '2023-2027 Gobernu Plana' aurkeztu zuen**

Arrasateko Udal Gobernuak 2023 eta 2027 urte arteko Gobernu Plana aurkeztu zuen jendaurrean Kulturaten. *Guztionez Arrasate* izenburupean, txostenak 70 proiektutik gora jasotzen zituen, lau alor hauek banatuta: herritarrak; gobernantza ereduak; obra eta zerbitzuak; eta zaintza.

## ARRASATE

**'Tortura Arrasaten' genero ikuspegitik liburuaren aurkezpena**

Intxorta 1937 Kultur Elkarteak *Tortura Arrasaten, genero ikuspegitik* liburua kaleratu zuen, eta Kulturaten egindako aurkezpenak ikusmina piztu zuen herritarren artean. Nekane Ayensaren, Iñaki Barrutiaren eta Juan Ramon Garairen lanak Arrasateko zortzi emakumeren testigantzak jasotzen ditu.



Urte berrian, erronka berriak.  
2025 On.





**ARRASATE**

**Josu Arteaga** Idazlea



Otsailaren 9an Kulturateko Jokin Zaitegi gela lepo bete zen, Josu Arteaga idazle arrasatearraren bigarren liburuaren aurkezpenean: *Memorias de la mar ciega*.

**OÑATI**

**Aloña Mendiren 75. urteurrena**

Aloña Mendi Elkarteak 75 urte bete zituen, eta, urtemuga hura ospatzeko, urte osorako ekitaldiak antolatu zituzten. Gainera, urteurrena aprobetxatuz, elkartearen armarrria berriro egin zuten.

**DEBAGOIENA**

**Javier Reteigi** Idazlea





*Horizontes de esperanza* izeneko liburua aurkeztu zuen Javier Reteigik Huheziren Eskoratzako fakultatean. Gizarteak dituen hutsuneei nola aurre egin azaltzen du bertan.

**ARETXABALETA**

**Loramendi elkarteak 30 urte**

Loramendi elkarteak 30 urte bete zituen, eta, hori ospatzeko, urte osoko egitaraua antolatu zuten. Opakizunak, ordea, 2023ko abenduan hasi ziren, elkarteko lehen zuzendaritza taldeari aitortza eginda.



**DEBAGOIENA**

**Dominak atleta debagoiendarrentzat**

Galizian jokatu zen Espainiako Atletismo Txapelketan Malen Ruiz de Azua arrasatearrak urrezko domina eskuratu zuen pertika-jauzian; Eneko Carrascal arrasatearrak, berriz, zilarra ekarri zuen etxera jauzi hirukoitzean; eta Andoni Calbano bergararrak, azkenik, brontzea lortu zuen 200 metroko proban.



**DEBAGOIENA**

**Euri jasen albo-kalteak izan ziren Oñatin eta Antzuolan**

Otsailaren 26ko eguerdian hasita, euri jasa handia izan zen Debagoiengan, eta prezipitazioek albo-kalteak utzi zituzten, batez ere, Oñatin eta Antzuolan. Oñatin, esaterako, menditik jaitsita-ko urak Otadui zuhaiztia urez bete zuen, eta ur putzu handiak sortu eta zirkulazioa oztopatu, goiko argazkian ikusten denez.



**OÑATI**

**Altube eta Etxeberria omendu zituzten**

Aloña Mendiren txirrindularitza sailak taldeen aurkezpen ekitaldia aprobetxatu zuen Mariano Altube eta Luis Mari Etxeberria omentzeko. Altube Aloña Mendiren txirrindularitza saileko lehen txirrindularia izan zen, 1974an. Hain zuzen, Etxeberria izan zuen alboan laguntzen, eta egindako lanaren aitortza jaso zuen hark.

**DEBAGOIENA**

**"Garraio publiko duina" eskatu zuen Ernaik eskualderako**

Debagoieneko Ernaik agerraldia egin zuen Eskoriatzan bailarako garraio publikoaren egoera salatze eta, era berean, zerbitzu duina eskatzeko. Eskoriatzan egindako prentsaurrekoa, gainera, hurrengo hilabeteetan aurrera eraman zuten *Garraio publiko duina* dinamikaren hasiera izan zen.



**OÑATI**

**Natrako langileen mobilizazioak eta lanuzteak**

Urtarrilean ekin zioten Natrako langileek lanuzteei, lan-hitzarmen duina lortzeko borrokan, eta, otsail osoan, lanuzteez gainera, manifestazio eta mobilizazio ugari egin zituzten. Hain zuzen, herritarren eta herriko eragileen babesa jaso zuten horietan. Martxoaren leian jakinarazi zuten akordioa lortu zutela.



Ez dira ekintza solteak

Egiteko modu bat da



**OÑATI**  
dabilen herria



## ARAMAIO

**Idoia Asurmendik disko berria**

Idoia Asurmendik *De amar y desandar* diskoa aurkeztu zuen martxoaren 23an Aramaion, Sastiñan. Haren bigarren estudioko lana aurkeztuta, aurkezpen bira apirilaren 13an hasi zuen, Eibarren.

## OÑATI

**Maddalen Etxegarai oñatiarra**

Emakume Master Cup txapelketako finala jokatu zen martxoaren 17an Uarkapen. Maddalen Etxegarai oñatiarrak eta Enara Gamindek 22-16 galdu zuten Arrizabalagaren eta Erasunen aurka.

## ARRASATE

**Yaman Mjhed** Borrokalaria

Yaman *Diamante*-k lehenengo postua errekuperatu zuen Madrilgo Vistalegren jokaturako WOWN, KO tekniko. Arrasatekoak bigarren roundean hartu zuen mendean Jose Gilarte.



## ARRASATE

**MondraTEA Eguna lehen aldiz**

Martxoaren 23an, MondraTEA Eguna egin zuten Arrasaten, Biteri plazan, autismoa gizarteratzeko helburuarekin. Txatxilipurdik hainbat ekintza egin zituen eta puzgarriak jarri zituzten, Atracciones Sanzen eskutik.



## ARETXABALET

**Aratz elkarteko 'Zirkus' filma**

Aratz elkarteko 20 bat aktorek egindako *Zirkus* film laburrak harrera ezin beroagoa izan zuen; Aretxabaletako Arkupe aretoa bete egin zen martxoaren 1ean. Adiskidetasuna oinarri duen filmaren gidaritzan lanak Jokin Antxiak egin zituen eta grabazioaren ardura Xabi Antxiak izan zuen.



## DEBAGOIENA

**Eskualdetik bi aldiz igaro zen Korrika**

23. Korrika martxoaren 14tik 24ra egin zuten, Irundik Baionara. Debagoienetik bi aldiz pasa zen, eta Eskoriatzan Idurre Ezpeleta goienakideak eraman zuen lekukoa Goienaren kilometroan. Garazi Arrula idazle eta editore nafarra izan zen Euskal Herri osoan eskuz esku ibili zen lekukoak zeraman mezuaren egilea.



## ARETXABALET

**UDAKo emakumeen 1970eko futbol taldeari aitortza**

Martxoaren 10ean, Aresko martxaren seigarren edizioa abiatu zen, 12:00etan, Aretxabaletako plazatik Eskoriatzara, *Emakumeok bidea eraikiz* lelopean. Aurretik, baina, 1970eko UDAKo emakumeen futbol taldeari aitortza egin zioten. Eskoriatzara iritsi zirenean, Rosa Lasagabasterri omenaldia egin zioten.

## OÑATI

**Azkoagainen 75. urteurreneko ospakizuna egin zuten**

Azkoagainen futbol zelaia 75 urte bete zituen, eta hori ospatzeko ospakizuna egin zuten martxoaren 17an. Ekitaldian parte hartu zuten Aloña Mendi taldeko eta Oñatiko Udaleko ordezkariak, baita egun hartan partidua jokatu zuten futbolariak ere. Aurrekoa dantzatu zieten eta plaka estreinatu zuten.

## ARRASATE

**40 urte GALEk Xabier Perez de Arenaza hil zuenetik**

Martxoaren 23an, 40 urte bete ziren GALEk Xabier Perez de Arenaza arrasatearra Miarritzen tiroz hil zuela, eta, urteurrenaren harira, Egiari GALde dinamika hura oroitzeko ekitaldia antolatu zuen Arrasaten, Kulturateko klausuroan. Memoria ekitaldian, Kulturateko klausura bete egin zen.



KOOP. E.

**EGUZKIGRAF inprimategia**  
 Tel.: 943 79 18 44 / 656 714 770  
[info@eguzkigraf.com](mailto:info@eguzkigraf.com)  
 Industrialdea F-O-4  
 ARETXABALET

*2025a oparotasunez beteta izatea opa dizugu.*  
*Zure konfiantza izaten segituko dugun esperantzarekin eta gure zerbitzuak eskaintzen segituko dugulakoan.*



**ARRASATE****Ander Murua** Pilotaria

Goñiren oroimenezko 32. txapelketako finalak jokatu zituzten martxoaren 27an Zumarragan, eta Ander Muruak Aingeru Bernaolarekin irabazi zuen txapela.

**OÑATI****Malen Osa garaile**

Martxoaren 9an Sierra Nevada jokaturako mendiko eskiko Espainiako Txapelketako bertikalean Malen Osa izan zen garaile. 32 minutu eta hamar segundo behar izan zituen 2.750 metroko ibilbidea egiteko.

**ARRASATE****Maialen Gallardo** Borrokalaria

Martxoaren 30ean, Europako kickboxing txapelketa jokatu zen Cruzilles-les-Mepillat (Frantzia) herrian, eta garaipena eskuratu zuen ISKA kategorian, 48 kiloen modalitatean.

**BERGARA****Epeleko zaborteziaren afera**

Martxoaren 11n, Mankomunitatean agerraldia egin zuten Epele zaborteziaren afera ez irekitzeko proposamena egiteko, ingurumen zerbitzu teknikoak egindako txostenak jasotako arrazoiak aintzat hartuta.

**DEBAGOIENA****Borroka feministaren aldarria herri guztietan**

Martxoaren 8aren baitan, hainbat ekintza eta mobilizazio egin zituzten Debagoiengan; argazkian, Oñatiko manifestazioa. Lilabide martxa izan zen Arrasaten, gatzagarrek egun osoko egitaraua antolatu zuten herriko emakumeak batzeko, Aresko Martxa egin zuten Aretxabaleta eta Eskoriatza artean...

**BERGARA****Jose Mari Esparzak "hunkituta" jaso zuen Monzon-Ganuzua saria**

Jose Mari Esparza idazle eta editore tafallarrak "eskertuta eta hunkituta" jaso zuen Bergarako Udalak eta Olos Dorrea Fundazioak banatzen duten Monzon-Ganuzua Euskal Utopikoei Saria, martxoaren 7an, Seminarixoa. Aretoa goraino bete zen ordubetan inguru iraun zuen ekitaldi hunkigarrian.

**OÑATI****Xabier Ugarte kultur gilea omendu zuten**

Urtarrilaren 20an hil zen Xabier Ugarte euskaltzale eta kultur gilea oñatiarra. Korrika Kulturalaren bueltan, omenaldia egin zioten martxoaren 20an Santa Ana antzokian. Ikusleez gain, musikariak, abesbatzako kideak, Artixako kideak eta Udal Gobernuako kideak egon ziren, besteak beste.

**BERGARA****Landaola saria Oxirondo azokako Elikaenari**

Bergarako Oxirondo azokako Elikaenea gunea saritu zuten Landaola sarietan, Erakunde Publikoaren Saria kategorian. Zazpigarren edizioa izan zen 2024koa, eta, Bergarako Udalar emandako sariarekin gain, beste hiru banatu zituzten hainbat ataletan martxoaren 14an Usurbilen egindako ekitaldian.

**ARRASATE****First Lego Leagueko Euskadi-Mondragon torneoaren finala**

Gipuzkoako eta Bizkaiko 11 ikastetxetako 300 ikasle baino gehiagok hartu zuten martxoaren 4an, Arrasaten, MUko erakinean jokatu zuten First Lego Leagueko Euskadi-Mondragon torneoaren finalean. Hala, Portugaleteko eta Markina-Xemeingo ikasleak nabarmendu ziren txapelketan.



**Urte berri on!**

*Herrixan Erosi herriak biz!*

**ANTZUOLAKO UDALA**



## ARRASATE

## Jose Antonio Ardanza hil zen

Apirilaren 8an hil zen Arrasateko alkate, Gipuzkoako ahaldu nagusi eta lehendakari izandako Jose Antonio Ardanza. Jaurlaritzak hiru dolu-egun ezarri zituen eta Arrasateko udalbatzak minutuko isilunea egin zuen.

## ELGETA

## Errepresaliatu eta hildakoak gogoan

Memoria Eguna ospatu zuten apirilaren 20an, eta Elgetako errepresaliatu zein erresistenteei eskainia izan zen. Udaletxeko fatxadan errepresaliatuen eta hildakoen izen-abizenak dituen plaka jarri zuten.

## OÑATI

## Joxe Ramon Arrazola Idazlea



Oñatiko kanpandorrearen historia jasotzen duen liburua idatzi zuen Arrazolak, eta apirilaren 27an aurkeztu zuen San Migel Parrokiako sakristian, lagun eta senidez inguratuta.

## ARETXABALETAKO

## Ekain Andres gogoratzeko jaialdia

Apirilaren 6an egin zuten Ekain Andres gazte aretxabaletarra gogoratzeko jaialdia, haren heriotzaren lehen urteurrenean. Omenaldiaz gain, epaiketaren gastuei aurre egiteko dirua biltzea zen helburua.



## LEINTZ GATZAGA



## Gipuzkoako Diputatuen Kontseilua Gatzagan

Lurraldeko udalerrietan aldizkako bilkurak egitea erabaki ostean, Leintz Gatzagan egin zuen lehen geldialdia Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, apirilaren 30ean. Bilkura egin aurretik, batzartuta izan ziren Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusia eta Dorleta Elkorobarrutia Gatzagako alkatea.

## BERGARA

## Elkororen inguruko liburua aurkeztu zuen Mikel Zubimendik

Apirilaren 13an, Jose Luis Elkororen bizitza jasotzen duen *Han egon zen!* liburua aurkeztu zuen Mikel Zubimendik Bergarako udaletxeko areto nagusian. Eskualdeko eta Euskal Herri osoko pertsonak bertaratu ziren aurkezpenera, baina Bergarako alkate ohia ezin izan zen joan, ondoezik zegoelako.



## DEBAGOIENA

## EH Bildu nagusitu zen hauteskundeetan

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziren apirilaren 21ean, eta Debagoiengan EH Bildu nagusitu zen, 16.043 boto eskuratuta. Herri guztietan irabazi zuen alderdi abertzaleak. EAJ izan zen bigarren alderdi bozkatuena, 10.110 botorekin. Bost debagoien-dar izan ziren hautatuak Legebiltzarrerako (eskuinean).

## EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2024

Lore Martinez Axpe

Rebeka Ubera Aranzeta

Elena Lete Garcia

Aitor Urrutia Oianguren

Alberto Alonso Martin

## DEBAGOIENA

## Eskoriatzan hasi zen Gipuzkoa Bertsotan, sailkapen fasea

Eskoriatzan hasi zen Gipuzkoa Bertsotan Gipuzkoako Bertolari Txapelketako sailkapen fasea, apirilaren 25ean. Libe Goenaga getariarra izan zen irabazlea, 330 punturekin. Jon Mata antzuolarra zazpigarren geratu zen, 269 puntu eskuratu. Pozik zegoen Mata han bizi izandako esperientziarekin.



Zure kide globala ebaketa zehatzean

Lizarragako Hiribidea, z/g • 20577 Antzuola (Gipuzkoa) • [www.elay.eus](http://www.elay.eus)



**ARETXABALETA****Katalin Antxia** Diseinatzailea

Diseinatzaileak Saran (Lapurdi) duen atelierrean lapurrak sartu ziren martxoaren 22an, eta apirilaren diru-bilketa kanpaina jarri zuen martxan, lapurretak eragindakoei aurre egiteko.

**ANTZUOLA****Leire Galeano** Pilotaria

Ainhoa Ruiz de Infanterekin batera Ados Pilota elkarteko binakako txapelkun bilakatu zen apirilaren 20an. Maddi Barrocal bergarra eta Naroa Agirre garaitu zituzten finalean (22-17).

**ANTZUOLA****40 urtez aihertarrekin senidetuta**

Antzuolarren eta aihertarren arteko senidetzeak 40 urte bete zituela ospatu zuten apirilaren 13an Antzuolan. Iparra-Hegoa jaialdian ere ospatu zuten aurrez, eta hurrena Aiherran egingo dute.

**OÑATI****Oñati Bizirik-en bosgarren diskoa**


Apirilaren 6an egin zuten *Oñati Bizirik* diskoaren aurkezpena; Antixena gaztetxeak ekoizten duen musika bildumaren bosgarrena. Hamazortzi taldek eta bakarlarik hartu zuten parte bilduman.

**ARRASATE****MLAKOOPek 2024ko Zerbitzu Enpresa Saria irabazi zuen**

32. Gipuzkoako Enpresa Sariak banatu zituzten apirilaren 24an Donostian, eta Gipuzkoako Bazkondeak Arrasateko MLAKOOP enpresari eman zion 2024ko Zerbitzu Enpresa Saria. MLAKOOP Mondragon Lingua eta Alecop bateratzen dituen enpresa da eta Mondragon Korporazioari lotuta dago.

**DEBAGOIENA****Atsekabea eragin zuen Itzuliko erorikoak**

Debagoienean sartzeaz bat, eroriko handi batek geldiarazi zuen Euskal Herriko Itzuliko etapa apirilaren 4an. Albistea zabaldu zenean, atsekabea nagusitu zen Leintz Gatzagan zain zeuden zaleen artean. Tropela neutralizatu egin zuten helmugaraino, baina animo eta txalo artean igaro ziren txirringululariak Debagoienetik.

**BERGARA****Herrira itzuli zen San Pedro elizako organoa**

Bi urte eta erdiz Frantzian zaharbertitzen egon ostean, apirilaren 12an itzuli zen 1889ko Stoltz Freres organoa Bergarako San Pedro elizara. Michael Jaurin organogile frantziarraren Lyongo tailerrean egin zituzten lanak. Instrumentuaren lanez gain, Artez estudioko langileak haren kutxa eta figurak garbitzeko lanetan ibili ziren.



# Gualbi

aholkularitza

Urte berri on!

ZERGA, KONTABILITATE ETA LAN ARLOKO AHOAKULARITZA

---

ABOKATUAK

---

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!





Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com  
 Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasores.com



## DEBAGOIENA

**Dokumentala LABen 50. urtemugan**

LAB sindikatuak 50 urte bete zituen 2024an. Urteurrena ospatzeko, *Eskuz esku. LAB zabaltzen* izeneko dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia izan zuten maiatzaren 22an Arrasaten.

## ARRASATE

**Dokeren 22 urteak, liburu batean**

Doke antzerki taldearen hogeita bi urteko ibilbidea batzen duen liburua aurkeztu zuten Jokin Zaitegi gelan ekainaren 22an. Josemari Velez de Mendizabal historiazalea izan zen liburuaren idazlea.

## BERGARA

**Lacor-Ibiliren historia, idatzita**

*Lacor-Ibili 1942-2024. Casi un siglo progresando* liburua aurkeztu zuten maiatzaren 16an Bergarako Miguel Altuna institutuko aretoan. Beatriz Campuzano kazetariak idatzi zuen liburua.

## OÑATI

**Olabartarren bizimodua, lehen lerroan**

*Olabartarrak* izeneko liburua aurkeztu zuten maiatzaren 20an Olabarrieta auzoko elkartearen. Auzoko lehengo bizimodua, langintzak, ospakizunak eta bestelakoak jaso zituen Ander Lizarralde idazleak.



## OÑATI

**Bigarren gelditu zen Malen Osa Zegama-Aizkorri lasterketan**

Mendi maratoirik egin gabea zen Malen Osa, baina, hala ere, maiatzaren 26an jokatu zen Zegama-Aizkorri lasterketan bigarren postua eskuratu zuen. Helmugara 4 ordu, 35 minutu eta 20 segundotan iritsi zen, Sylvia Nordskar baino 6 minutu inguru geroago. Emozionatuta zeharkatu zuen helmuga.



## OÑATI

**Azken agurra Jesus Irizar 'Txutxin'-i**

Agur-ekitaldi jendetsu eta hunkigarria egin zioten maiatzaren 2an Jesus Irizar *Txutxin* dantza-maisuari. Kofradiako kideek eraman zuten hilkutxa, eta Oinatzeko dantzariak Oñatiko banakua dantzatu zuten parrokan; Corpusetan egiten dutena. Kanpoan, *Agur jaunak* jo zuten txistulariek, azken agurra egiteko.



## ELGETA

**Euskal Herriko Mendi Biltzarra aurkeztu zuten**

1924ko maiatzaren 18an sortu zen Euskal Mendizale Federazioa, Elgetan. Mendeurrena ospatzeko hainbat ekimen egin ziren, eta hilaren 18an izan zen ekitaldi nagusia. EAEko eta Nafarroako mendi federazioek Euskal Herriko Mendi Biltzarra aurkeztu zuten han, bi federazioen organo bateratua.

## BERGARA

**Afrika Eguna ospatzeko asteburu osoko egitaraua**


Maiatzaren 25ean Afrika Eguna ospatu zen, eta helburu solidarioa zuen aste bukaera osorako egitaraua prestatu zuen Bergarako Ndank Ndank elkarteak 24tik 26ra. Egubakoitzean Elh Malick taldearen kontzertua izan zen, zapatuan kulturen arteko desfilea eta domekan musika eta dantza afrikarrak.



## DEBAGOIENA

**Klima larrialdia izan zuten aztergai zazpi begiradetatik**

D2030ek antolatutako *Iraunkortasunari hamaika begirada* jardunaldien ekitaldi nagusia egin zuten maiatzaren 24an Kulturaren. Onintze Salazar, Iñaki Etxebeste, Adriana Aguirre, Iñaki Antiguada, Elisa Sainz de Murieta eta Markel Peñalba adituek klima larrialdia jorratu zuten hainbat ertzetatik.



# oerlikon

## balzers

Erreminta eta lanabesen  
bizi-iraupena  
luzatzeko estaldurak:  
alde txikia, eragin handia.

*Urte berri on!*

[www.oerlikon.com/balzers/es](http://www.oerlikon.com/balzers/es)



**BERGARA**

**Istripua izan zuen langilea hil egin zen**

Maiatzaren 22an Embalan 3 enpresan istripua izan zuen behargina hil egin zen 27an. LABek, ESK-k, Steilasek, Hiruk eta EHNE-Etxaldekin osatutako intersindikalak mobilizazioa egin zuen enpresa aurrean.

**ESKORIATZA**

**Mario Padilla Maguregiren heriotza**

Mario Padilla Maguregi txistularia, Eskoriatzako txistularien "maisua", hil zen maiatzaren 16an, 95 urte zituela. "Erreferente zuzena eta aita pontekoa" izan zen txistulari eskoriatzar askorendako.

**ARETXABALETA**

**Manex Larrañaga Txirrindularia**

Bolintxo taldeko txirrindulari aretxabaletarra Gipuzkoako txapeldun geratu zen errepidean eta mendian, maiatzaren 25ean eta 26an jokaturako lasterketa banatan.



**DEBAGOIENA-ELGETA**

**Puntaik Punta jaialdia egin zuten**

Maiatzaren 10etik 12ra bitartean Puntaik Punta jaialdia ospatu zen Elgetan. Debagoieneko Bidezidorren Jaialdian herriko eragileek egindako ekarpena nabarmendu zuten antolatzaileek.



**ARRASATE**

**LF2 mailara igotzea lortu zuen MU Ointzek**

Granadan jokatu zen LF2 mailara igotzeko lauako finala, maiatzaren 23tik 25era. Al-Qazeres Extremadura, Granada Mas Baloncesto eta Stadium Casablanca izan zituzten aurrez aurre. Lehen bi partiduak irabazi zituzten, eta azkena galdu. Hala ere, partidu aurretik bazekiten matematikoki LF2 mailako taldea zirela.



**DEBAGOIENA**

**Ander Malbadi izan zen Algaraka lehiaketako irabazlea**

Algaraka Bakarrizketa Lehiaketa irabazi zuen Ander Malbadi albizurtarrak maiatzaren 31n Bergarako Seminarixoan jokatu zen finalean. Haren ostean, Ion Martinez Txiki, Asier Galtartza eta Manex Astigarraga gelditu ziren, hurrenez hurren. Yogurinha Borova izan zen finaleko artista gonbidatua.



**ELGETA**

**Realeko eta Eibarko jokalariek ohien bazkaria**

Maiatzaren 30ean, Realeko eta Eibarko jokalariek ohien bazkaria egin zuten Ozkarbi elkartearen zale-talde baten proposamenaz. 42 lagun elkartu ziren bazkaltzeko, gehien-gehienak jokalariek ohiak. Han izan ziren, besteak beste, Txiki Begiristain, Juanan Larrañaga, Alberto Gorriz, Periko Alonso eta Jose Antonio Uranga.

**DEBAGOIENA**

**Ikastetxe-Kliken ikasturte bukaerako ekitaldia egin zuten**


Aretxabaleko, Arrasateko, Eskoriatzako, Bergarako, Elgetako eta Oñatiko hamahiru ikastetxeek hartu zuten parte EkiONEk eta D2030ek babestutako egitasmoan. Ikastetxeetan energia-aurrezpena eta eragin-kortasuna sustatzea zen helburua. Maiatzaren 31n Oñatiko gaztelekuan egin zuten ekitaldia.



**ARRASATE**

**Erreportaje berezia 30 urteak ospatzeko**

Arrasateko Rugby Taldeko emakumeen taldeak 30 urte bete zituen, eta maiatzaren 18an ospatu zuten urteurrena. Mojategin batu ziren guztiak, poteoa egiteko, eta, ostean, Herri Gain elkartearen bildu ziren bazkaria egiteko. Bazkaldu aurretik, Goienak egindako erreportaje berezia ikusi zuten primizian.



*Urte berri on!*



ELGETAKO UDALA



## DEBAGOIENA

**Aitortza Iñigo Guridi 'Kalibre'-ri**

Iñigo Guridi *Kalibre* zenaren familiari zilarrezko domina eman zion Gurutze Gorriak ekainaren 29an, Oñatiko Santa Anan egindako ekitaldi hunkigarrian. Guridi 35 urtez ibili zen boluntario lanean.

## ARAMAIO


**Euskadiko eskola txikien topaketa**

EAEko eskola txikietako 200 irakasletik gora elkartu ziren Aramaio Kultur Etxean ekainaren 26an. Arte garaikidearen ikuspegia landu eta eskoletako esperientziak partekatu zituzten partaideek.

## ARRASATE

**Andoni Gorosabel** Futbolaria

Athleticek Andoni Gorosabel jokalaria arrasatearra fitxatu zuen ekainaren 19an. Realean eta Alavesen ibilitako eskuin hegaleko atzelariak 2028rarte sinatu zuen klub zurigorriarekin.



## BERGARA

**'100 urte kantuan' ikus-entzunezkoa**

2023an bete zuen mendeurrena Bergarako Orfeoiak, eta, ospakizunei ginga jartzeko, *100 urte kantuan* ikus-entzunezkoa aurkeztu zuen ekainaren 25ean, Seminarioxan.



## OÑATI

**Lan luzea egin ostean, txondorra piztu zuten**


Txondorraren Bueltan egitasmoko kideek 2023ko azaroan aurkeztu zuten txondorraren proiektua. Ondorengo hilabeteetan irteerak, hitzaldiak eta txondorra bera eraikitze auzolanak egin eta gero, ekainaren 1ean piztu zuten ikatza sortzeko egur-meta. Ekitaldia ikusteko jendetza batu zen San Martin auzoko ermitan.



## DEBAGOIENA

**Urkulluk azken agerraldia egin zuen, bailarako ospitalean**

Iñigo Urkulluk lehendakari gisa parte hartu zuen azken ekitaldi publikoa Debagoieneko ospitalean izan zen, ekainaren 19an. Eraikin berriaren lehen harria jarri zuen, Gotzone Sagardui Osasun sailburuarekin, Eider Mendoza Gipuzkoako ahaldun nagusiarekin eta Maider Morras Arrasateko alkatearekin batera.



ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

## DEBAGOIENA

**Europako Hauteskundeetan, EH Bildu irabazle**

Europako Parlamentuko hauteskundeak egin ziren ekainaren 10ean, eta EH Bildu nagusitu zen Debagoieneko udalerrri guztietan. 12.220 boto lortu zituen guztira, 2019an baino 1.938 gutxiago. Bailarako bigarren alderdi bozkatuena EAJ izan zen, 6.479 botorekin, 2019ko hauteskundeetan baino 5.426 gutxiago.



## ARRASATE

**Arrasate Kirol Sariak banatu zituzten**


Ekainaren 20ko AKS ekitaldian, Ane Zabalak –alboko argazkian, eskuman– jaso zuen denboraldiko kirolari onenaren saria, boto-emaile gehienek hala erabakita. Mendi lasterkariak, besteak beste, Hiru Handiak proba irabazi zuen iaz. Udalaren aitortza *Joshe* Elorzarentzat izan zen; talde onenaren saria, Ointxe!-rentzat.



## OÑATI

**Fan Hemendik Eguna egin zuten berriz ere**

Hainbat urtetako etenaren ostean, Guardia Zibila Oñatitik eta Euskal Herritik joatea eskatu zuten ehunka lagunek Oñatin, jai-giroan, hilaren 22an. Guardia Zibila Oñatiko "historia ilunaren" parte izan dela salatu zuten manifestazioan, "kuartelik gabeko herria" izan nahi dutela aldarrikatzearekin batera.

**LIZKER**

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

• Lan aholkularitza

• Kontabilitatea

• Zerga aitortpena

*Urte berri on!*

Hidalgo

Errementari plaza 2-3 behea, • OÑATI



**ESKORIATZA****Kontzejupeko Txapelketak, 20 urte**

Udaletzeko arkupeetako eskupilota txapelketa hogeigarren aldiz jokatu zuten, hilaren 22an, Atxorrotx Kultur Elkarrekin antolatuta. Hamabi bikote izan ziren lehian arratsaldera arte iraun zuten torneoan.

**ARRASATE****Maria Ubarretxena** Politikaria

Eusko Jaurlaritzako bozeramaile eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu sailburu izendatu zuten Maria Ubarretxena ekainaren 25ean, Ajuria Enean.

**ARRASATE****'Etxe txikinak', liburura ekarrita**

*Etxe Txikiak 100 urte – Casas baratas 1924-2024* liburua aurkeztu zuen ekainaren 5ean Arrasate Zientzia Elkarrekin. Etxe horien 100 urteko historia kontatzearekin batera, 118 argazki bildu zituzten liburuan.

**BERGARA****Mikel Linazisoro** Eskalatazailea

Eskaladako Espainiako zailtasun modalitateko txapeldun bilakatu zen ekainaren 15ean Mikel Linazisoro bergararra, eta, bide batez, Munduko Koparako sailkatu zen.

**OÑATI****Gipuzkoako Futbol Sariak banatu zituzten**

Gipuzkoako Futbol Federazioak Oñatiko Santa Ana antzokian egin zuen urteroko aitortza ekitaldia, ekainaren 7an, Aloña Mendiren 75. urtemuga baliatuz. Hemezortzi sarituetatik bi debagoiendarrak izan ziren: Antzuola Kirol Elkarrekin –gizarte lanari saria– eta Aloña Mendiko Gexan Anduaga –denboraldiko golik onena–.

**ARETXABALETA****UDAK Hirugarren Mailara igotzea lortu zuen**

Denboraldiko futbol partidurik garrantzitsuena jokatu zuten ekainaren 15ean Aretxabaletako Ohorezko Erregional Mailako gizonetakoek, Ibarra, Gasteizko Aurreraren aurka. Garaipenak mailaz igotzearen saria zekarren. Bada, merezita irabazi (4-1), eta Hirugarren Mailara itzuli zen UDA, bederatzi urte igaro eta gero.

**ELGETA****22 eragilek hartu zuten parte Elgetako lehen Herri Azokan**

Herrian dauden egitasmoak ezagutzera emateko eta eragileen arteko sarea ehuntzeko, Elgetako I. Herri Azoka egin zuten ekainaren 15ean. Izan ere, 2023an herri hezitzaileen Oinherri sarrera batu, eta herri mailako lan dinamika bat abiarazi zuten elgetarrek. Hala, azoka antolatzea izan zen ekimenetako bat.

**DEBAGOIENA****Malen Ruiz de Azuak eta Andoni Calvanok urrea eskuratu zuten**

Emaitza bikainak lortu zituzten pertika-jauzilari arrasatearrak eta abiadura-lasterkari bergararrak Espainiako atletismo txapelketetan, ekaineko azken asteburuan: Ruiz de Azuak –goiko argazkian, erdian– 4,35 metroko pertika-jauzia eginda, eta Calvanoren –behean, 3.a– taldeak 4x100ekoan azkarrena izanda.

**ARAMAIO****Europako txapelketan egondako herriko sokatiralariei aitortza**

Jon Andoni Axpe, Juan Jose Ibabe, Patxi Jauregi eta Heriberto Arriolabengoa Suedian jokatuak txapelketa kontinentalean izan ziren, Espainiako sokatira selekzioa ordezkatzen, 1979an. Bada, bertsoz eta dantzaz osatutako omenaldia jaso zuten Aramaion hilaren 8an, 640 kiloko Euskadiko sokatira finalean.



**Tai Zoriontsuak eta Urte Berri On**

eskoriatza.eus  
eskoriatzakoagenda.eus



## OÑATI

**Ritxi Mendiguren lagunartek, 30 urte**

30. urteurrena ospatu zuen Oñatiko Ritxi Mendiguren lagunartek, uztailaren 20an. Lagunarteko kideak udako asteburu hartan elkartu ziren Athleticeko jokalariei ohi Ritxi Mendigurenekin.



## DEBAGOIENA

**Arantzazuko lehen udako ikastaroa**

EHUK, Arantzazulabek eta Joxe Azurmendi katedrak elkarlanean antolatuta, lehen aldiz uda ikastaroa egin zuten, uztailaren 22an eta 23an, *Arantzazun bizi: iragana, orainaldia eta etorkizuna zer?* izenburupean.

## OÑATI

**Burjassoteko Musika Banda Oñatin**

Oñatiko eta Valentziako banden arteko elkartrukean, Burjassotekoak uztailaren 21ean euren komunitateko tradiziozko musikaz osatutako kontzertua egin zuten Lazarraga jauregiko lorategian.

## DEBAGOIENA

**Debagoiendarrak Donosti Cupen**

Uztailaren 1etik 7ra, 28 herrialdetako 910 taldek parte hartu zuten 32. Donosti Cup nazioarteko futbol txapelketan. Talde horietako zazpi Debagoienekoak izan ziren: bi Bergarakoak eta bost Arrasatekoak.



## ANTZUOLA

**Zurrategiko kiosko berriaren inaugurazioa**

Artistentzako eta entzuleentzako egokiagoa den musika kioskoa inauguratu zuten Antzuolan, uztailaren 7an. Amustei eta Lemak taldeek eman zuten kiosko berriaren lehen kontzertua. Eraberri-tze-lanen ostean, espazioa erabilgarriago bilakatu zuten; agertoki handiagoa, hainbat baranda eta toloak jarri zituzten.

## ESKORIATZA

**Kaiola barruko lehen borrokak Eskoriatzan**

Open Axtrokik, kaiola barruko borrokak, lehen aldiz izan zuten Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian, uztailaren 6an. Atama Kenpo Eskoriatza taldeak antolatuta, kenpo eta *kenpofight mma* diziplinetan aritu ziren parte-hartzaileak, eta debagoiendarrak nagusitu ziren: Danel Izurrategi eta Ioritz Diaz de Gereñu.



## ARRASATE

**Gipuzkoako Batzar Nagusien osoko bilkura ibiltaria**

Arrasaten egin zuten, uztailaren 2an, Gipuzkoako Batzar Nagusien urteroko osoko bilkura ibiltaria. Erakundearen ordezkariak duten alderdi guztietako kideak izan ziren bertan. Arrasateko alkate Maider Morrasedek eman zion zumitzezko uztia Xabier Ezeizabarrenari, Batzar Nagusietako lehendakariari.



## DEBAGOIENA

**Azken kongresua izan zen lehendakari gisa Iñigo Ucinentzat**

Bilboko Euskalduna jauregian egin zuten Mondragon Korporazioak 2024ko kongresua, uztailaren 17an. Iñigo Ucinenek Mondragoneko azken kongresua izan zen lehendakari gisa, zortzi urteren ondoren erretiroa hartu baitzuen. Pello Rodriguez Zabalek hartu zuen haren lekua, abuztuaren 1etik aurrera.



**MARTIN** frutategia  
Frutan eta txarkuterian espezialista  
*Urte berri on!*

San Juan kalea 12 ESKORIATZA Tel.: 652 77 53 58



**ARETXABALETA****Mbam herriko alkatearen bisita**

Senegalgo Mbam udalerriko alkate Ngor Dione Aretxabaletan izan zen, uztailaren 2an, Yaakar elkartearen ekimenez, osasunaren eta hezkuntzaren alorretan jaso duten laguntza eskertzeko.

**BERGARA****Pol Poleko urez hornitzeko aukera**

Gipuzkoako Ur Kontsorzioak hainbat lan egin zituen Bergarako Basalgo auzoko Albituko ur-tratamendu plantan. Uztailaren 18a ezkerro, herriguneko etxe guztietara iristen da ura Pol Poleko iturburutik.

**ARRASATE****Arrasate Bluesen seigarren aldia**


Nazioarteko zein Euskal Herriko goi-mailako musikariak ikusi eta entzuteko aukera eman zuen Arrasate Bluesek. Ostegunean, uztailaren 18an, hasi eta domekara bitartean hogei kontzertuk osatu zuten.

**ARRASATE-BERGARA****Ad Hoc orkestraren bira hasiera**

Herbehereetako bandak Bergaran eman zuen Euskal Herriko biraren lehenengo kontzertua, uztailaren 27an. Horrekin batera, Arrasateko Udazabal kultur ekimenari itxiera eman zion, hilaren 30ean.

**DEBAGOIENA****Hirekin: berrikuntza eta ekintzailtza helburu**

Berrikuntza eta ekintzailtza industrial jasangarriko Hirekin zentroaren inaugurazioa egin zen, uztailaren 15ean. Hiru enpresa proiektu daude aurreikusita 2024-2025eko ikasturterako Arrasateko zentro berrian, eta, besteak beste, horren berri eman zuten. Tartean izan zen Imanol Pradales lehendakaria.

**ARRASATE****Malen Ruiz de Azuak atletismoa utziko zuela iragarri zuen**

Malen Ruiz de Azuak atletismoa uzteko erabakia jakinarazi zuen, uztailaren 8an. Atletak Goiena telebistako *Harmailatik* saioan kirol ibilbidearen erreposoa egin zuen, eta hunkitu ere egin zen. Atletismoan jarraitzeko motibazio falta zuela esan zuen, eta hausnartutako erabakia izan zela.

**ARRASATE****Rock doinuek Monterron ezandarazi zuten**

Punk, rock eta oi! doinuek Arrasateko kaleak hartu zituzten, uztaileko lehen asteburuan: uztailaren 5ean hasita, Mondra&Roll jaialdiak jende ugari elkartu zuen Monterrongo parkean. Eta, jaialdirako egokitutako azpiegiturak baliatuta, Egurhotza iritsi zen, uztailaren 4an, musika urbanoz osaturiko eguna.

**GOIZPERREK**  
GABON  
ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUE GUZTIOI!

URTE BERRI ON!  
**2025**

**Goizper Group**  
Elkarlanean garatzen  
Ihinzadura · Industria · Bioteknologia



## DEBAGOIENA

## '2.000 del Winnipeg. Diario a bordo'

Gerra garaian kontzentrazio esparru frankistetatik Txilera alde egin zutenen historia jasotzen duen liburuaren bigarren edizioa aurkeztu zuen Intxorta 1937 kultur elkarteak, Txilen, abuztuaren 28an.

## DEBAGOIENA

## Mediku falta ZIU mugikorretan

EAEko hainbat ZIU mugikorretan mediku falta zegoela salatu zuen Emergentziak Osakidetzako Langileen Batzordeak. EAEn, ekainetik uztaiera, ehun txanda baino gehiagotan geratu ziren medikurik gabe.

## BERGARA

## Nagusiek gazteei eta gazteek nagusiei

Auzolandegiak arrakastatsuak izan ziren; Mizpirualdeko egoiliarren zaintzaz eta eurekin denbora igarotzeaz arduratu ziren 40 gazte: erdiak abuztuaren 5etik 14ra eta gainontzekoak bigarren hamabostaldian.

## ARETXABALETAKO

## David Agirre Tomate ekoizlea

Abuztuaren 24an egin zen, Kantabrian, Antzinako Tomatearen VI. Azoka, eta aretxabaletarrak nazioarteko jatorria dutenen kategoriako lehen saria eskuratu zuen.



## ARAMAIO

## Auzolanean margotu zituzten frontoia eta rokodromoa

Ez zen frontoian pintaketak agertzen ziren lehen aldia; Udalak auzolanean dei egin zuen abuztuaren 31rako; hainbat herritar bildu ziren kiroldegian frontoia eta rokodromoa margotzeko. Azkenengoan, baina, pintaketatik haratago joan, eta pinturak erretzen saiatu ziren.

## BERGARA

## Laugarren Ndank Ndank Elkarbizitza Programa

Begarako, Arrasateko, Ataungo eta Trapagarango 22 lagunek hartu zuten parte Ndank Ndanken aurtengo Elkarbizitza Programan, eta hamahiru eguneko egonaldia egin zuten, abuztuaren 14tik 27ra bitartean; egun haiek "ezberdinak eta zoragarriak" izan zirela aitortu zuten.



## ARETXABALETAKO

## Suteak komentuaren kanpoaldea soilik kaltetu zuen

Abuztuaren 5ean gertatu zen sutea, Aretxabaletako agustin-darren komentuan izandako eraikinean; kanpoaldea soilik kaltetu zuen. 2022an hasi zituzten komentuaren eraberritze-lanak, eta lan haiek amaitzear zedela gertatu zen. Horrek, beraz, lanak atzeratuko ditu.

## ELGETA

## Euskal txirrindularitzaren historia bizia

Abuztuaren 29an, ziklista izandako eta belaunaldi askotariko 40tik gora lagun elkartu ziren Elgetan; tartean, izen ezagun asko. Urteroko zita zen pandemia aurretik, eta, egoerak hobera egin ostean, berriz ekin diote hitzorduari.



Behin  
betiko.



etxera

EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE

*Unai, Arbe eta Peixoto Arrasatera!*

IRATI • TAUPA • BASATI • ILUNTZ

MONTE • DAT • OSORIK

URTARRILAREN 11N DENOK BILBORA!



**ARETXABALETA****Hugo de la Calle izan zen azkarrena**

16an, Leintz bailarako 85. txirindulari lasterketa egin zuten; 179 txirindularik eta hogeitaz hamar taldek hartu zuten parte. Hugo de la Calle izan zen garaile, bigarren Nil Gimeno eta hirugarren Sergio Trueba.

**BERGARA****Atxiloketa Bergaran, umea uzteagatik**

39 urteko gizon bat atxilotu zuten abuztuaren 31n Bergaran. Ertzain-etxearen aurrean utzi zuen 3 urteko semea. Aitortu zuten ezin zuela umearen ardura hartu eta agintariek zaintzea nahi zuela.

**ARRASATE****Unai Axpe Plater-tiratzailea**

Abuztuaren 4an Valladoliden jokatu zen plater tiroketako txapelketan munduko txapelkun izan zen. Hilaren 28an, Zaragozako txapelketan Europako txapelkun izatea lortu zuen.

**ESKORIATZA****Atsekabea Atama karate klubean**

Abuztuaren 30ean, Azazetako (Araba) portuan Ramon Larios lagunarekin batera moto-istripuan hil zen Leire Rato eskoriatzarra, eta "min handia" eragin zuen Eskoriatzako karate klubean.

**OÑATI****Ekaitz Txintxurreta Paralinpiar Jokoetan**

Ekaitz Txintxurreta oñatiarra Paralinpiar Jokoetan izan zen, Amagoia Arrieta debarraren entrenatzaile, abuztuaren. Lehenengoz hartu zuten parte Paralinpiar Jokoetan, bocciako banakako modalitatean. Bi partida jokatu zituen Arrietak, eta biak galdu zituen; hala ere, entrenatzailean pozik zegoen egindako lanarekin.

**ELGETA****Euskal Herriko I. Boleta Maratoia Elgetan**

Abuztuaren 31n, Euskal Herriko I. Boleta Maratoia egin zen, lehen aldiz, Elgetan. Herriak dituen hiru bolatokitan jokatu zen bolo-maratoia. Askotariko sariak jaso zituzten irabazleek; esaterako, txapelkunak urdaiazpikoa, 150 euro eta bola eskuratu zituen. Horrekin batera, bazkaltzeko aukera egin zen, Zabaletan.

**OÑATI****'Urruxola: Auzo txiki baten historia' liburua aurkeztu zuten**

Urruxola auzoan aurkeztu zuten, abuztuaren 20ean, *Urruxola: auzo txiki baten historia* izenburua duen liburua. Artixa kultur taldearen eta auzotarren eskutik sorturiko elkarlana da, eta, hamabi kapitulutan banaturik, auzoaren historia, mapa, base-rria, bizimodua, testigantzak eta argazkiak ageri dira.

**ALDEDI**

*Urte berri on!*

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu



## ANTZUOLA

**Eolikoen aurkako aldarria Trekutzen**

Sei urteko geldialdiaren ostean, Trekutz Eguna ospatu zuten, irailaren 7an; hain zuzen, eolikoen aurka daudela erakusteko aldarriaren bueltan, Meaka-Irimo herri plataformak antolatuta.

## BERGARA

**Okinaren ondarea, herritarren eskura**

100 urte bete ziren, irailaren 29an, Miguel Okina Bergarako margolaria jaiotza, eta, hori ospatzeko, ekitaldia egin zuten, Beartek eta Miguel Angel Elkorobezibar irakasle eta ikertzaileak antolatuta.

## OÑATI

**Madalen Etxegarai** Pilotaria

Udako Master Laboral torneo txapela lortu zuen oñatiarrak, Enara Gaminderekin batera, Arrate Bergarari eta Olatz Arrizabalagari 22-12 irabazita, Donostiako Atano III.a pilotalekuan.



## ARRASATE

**John Andueza** Idazlea

Azken portuko posdatak eleberria argitaratu zuten, irail hasieran, John Andueza idazle arrasatearrak, Asel Luzarraga idazlearekin batera. Gutun bidez idatzitako istorioa da.



## OÑATI

**Aloña Mendiren urteurreneko ekitaldi nagusia**

Aloña Mendi Kirol Elkarteak 75 urte bete ditu aurten, eta urteurreneko ekitaldi nagusia irailaren 20an egin zuten, Oñatiko herriko plazan. Egun hartan, elkarteko hamalau sailak eta taldeak aurkeztu zituzten. Ekitaldian, elkartearen argazki erraldoia atera zuten klubeko ordezkariekin eta kirolariek.



## OÑATI

**Boisekoak gogoan Euskal Diasporaren Egunean**

Euskal Diasporaren Eguna ospatu zuten irailaren 8an Oñatin. 70eko hamarkada erdialdetik 80ko hamarkada hasierara arte Oñatira ikastera etorri ziren AEBetako hainbat herritar eta haien senideak elkartu ziren Eltzian. Euskal ordezkari politikoak izan ziren bertan; tartean, Imanol Pradales lehendakaria.



## ARRASATE

**Ander Muruak profesionalen debutatu zuen**

Ander Muruak eskupilota profesionalen debutatu zuen irailaren 8an, Arrasateko Uarkapen Iñigo Bikuñarekin bikotea osatuta, eta 22-10 galdu zuten Egiuren V.aren eta Aldaberen kontra. "Bizi izan dudana esperientzia eta egun hau oroitzapenean eramango dut", adierazi zuen Muruak, partidaren ostean.

## ESKORITATZA

**Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren aurkezpena Apotzagako**

Irailaren 5ean Apotzagako elkartearen aurkeztu zuten Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, eta han izan ziren txapelketaren parte hartu zuten hainbat bertsolari. Aurten 50 urte bete dira Gipuzkoako lehen bertso-eskola sortu zela, Leintz bailaran, hain justu, eta horregatik hautatu zuten Apotzagako elkarte.



## OÑATI

**Anton Abadia saria jaso zuen Ruper Ordorikak**

Oñatiko musikariaren 40 urteko ibilbidea saritu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, irailaren 12an, Donostiako sari-banaketan. Iñigo Aristeguioren *Zazpi petaloak* oroigarria jaso zuen. Esker hitzak izan zituen: "Bitxia da sari bat hartzea norberak gehien maite duen langintzari esker. Esker-turik nauzue: milesker handia!".



**Aixa**  
frutategia

Buztinzuri 6. behea Antzuola  
Tel.: 943 78 62 69

*Urte berri on!*





**OÑATI**

**Joseba Arregi euskal preso, aske**

Zigor osoa beteta, aske geratu zen Joseba Arregi euskal preso ofiatiarra, Etxerat-ek irailaren 30ean jakinarazi zuenez. 1992an atxilotu zuten, Bidarten, ETArek logistika arduraduna izatea leporatuta.

**ARETXABAETA**

**Juan Pedro Santosen tomatearen onena**

Euskal Herriko Bertako Tomatearen II. Lehiaketa egin zuten irailaren 15ean, eta Juan Pedro Santosen Sunbillako arrosa nagusitu zen. Herriko Maria Jesus Revueltak bigarren saria eta aipamen berezia lortu zituen.

**BERGARA**

**Iñigo Alberdi Kudeatzailea**

Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko adiskide numerario izendatu zuten Iñigo Alberdi irailaren 21ean, Seminarixoan. *Kantuz sortu gara* izan zen Alberdiren sarrera ikasgaia.



**ELGETA**

**Emakumeen topaketa frontoian**

Emakume kirolarien borroka lehen lerroa ekartzeko egin zuten emakumeen topaketa, irailaren 28an. Egun osoko egitarauaren barruan, Ados Pilota Elkartearen Udara CaixaBankeko finalerdia jokatu zen.



**ARRASATE**

**Ikerlanen mende erdiko lanari omenaldia**

50 urte bete ditu aurten Ikerlanek, eta irailaren 19an omendu zituzten urte horietan guztietan teknologia zentroko lehendakari eta zuzendari izan direnak. Ekitaldian parte hartu zuten kooperatibaren enpresa, bezero eta erakunde laguntzaileetako 200 ordezkari baino gehiagok.



**ARRASATE**

**'Orratz-begia' erakusketa inauguratu zuten**

GFAk eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak Monica Jato irakaslearekin batera egindako *Orratz-begia*. 1936 Gipuzkoako gerraren *haurrak* erakusketa inauguratu zuten irailaren 19an Kulturaten. 600 argazki, belaunaldien arteko memoriaren zaintzaren gaineko teoria eta instalazio artistiko egon ziren ikusgai.



**BERGARA**

**Herritarrekin ospatu zuten Elikaearen irekiera**

"Ilusioz" aurkeztu zuten Elikae-nea –herritarren, ekoizleen eta postuetako dendarien beharrei erantzuneko dien herri-proiektua– Ereindajanek eta Bergarako Udalak bergararren aurrean irailaren 6an, Oxirondon. Orduan ikusi ahal izan zuten herritarrek denda; ofizialki, irailaren 9an zabaldu zituen ateak.



**OÑATI**

**Ospakizunak Urbiako ermitaren mendeurrenean**

100 urte bete zituen irailaren 28an Urbiako ermitak, eta, hori ospatzeko, elizkizuna egin zuten egun hartan. Ermita goraino bete zen elizkizunean. Horren ostean, Et Incarnatus orkestrak, Alaitz eta Mainerrek eta Zabale eta Lutxurdio trikitilariak emaldiak egin zituzten ermitan bertan.

**ARRASATE**

**MU, erronkak ezarrita, ikasturteari ekiteko gertu**

Berrikuntza eta ekintzailetza industrial jasangarrirako Arrasateko Hirekin zentroan eman zion Mondragon Unibertsitateak hasiera 2024-2025eko ikasturteari, irailaren 18an. Hain zuzen, zortzi gradu gehiagorekin hasi zuten ikasturtea, eta 7.000 ikasle baino gehiago matrikulatu ziren ikasketa ofizialetan.





# Gabilondo - Arregi

## harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela

**KALEBARREN 5    943 76 62 90    ANTZUOLA**




## Urte berri on!



## ARRASATE

**Lehendakariaren bisita Ikerlanera**

Imanol Pradales lehendakaria Arrasateko Kulturaten izan zen hilaren 24an, Ikerlanen 50. urteurreneko erakusketaren irekieran: "Aitzindariak izan zineten, eta etorkizunera begira jarraitzen duzuela egiaztatu dugu".

## LEINTZ GATZAGA

**Juan Luis Zabala** Argazkilaria

Juan Luis Zabalak irabazi zuen Goienaren 20. Udako Argazkien Lehiaketa, Leintz Gatzagako iturrian freskatzen ari den gazte kuadrilla bati ateratako argazkiagatik.



## BERGARA

**Euskara galtzaile adinekoen egoitzetan**

Aldundiaren Kabia erakundearen adinekoen egoitzetan –taratean, Bergarako eta Oñatikoa– euskara eskakizunen aurka egin zuten epaitegiek. Egoera salatzeko, protesta egin zuten, Bergarako plazan, hilaren 28an.

## ELGETA

**Gaizka Morales** Dantzaria

Urri hasieran fitxatu zuen Espainiako Dantza Konpainia Nazionalak dantzari elgetarra. Bost urteko lan-kontratua sinatu zuen, bakarlari. "Oso pozik" zegoen lorpenarekin.



## DEBAGOIENA

**300 lagundik gora erreka garbitzeko lanetan**

Debagoiengan Errekak Bizi Auzolanean egitasmoak deituta, erreka garbiketa egin zuten hilaren 9an bailarako zenbait herritan. Antolatzaileen arabera, 300 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte: "Erreka emari handiarekin zetorrenez, zalantzak izan ditugu, baina aurrera egin dugu; pozik gaude erantzunarekin".



## ARETXABALETA

**Kooperatibistak lasterka, Mundukideren alde**

Eman pausoa leloarekin, bederatzigarrenez antolatu zuten Mundukideren aldeko lasterketa, Urkulun, hilaren 20rako. Mundukideko Urri Urizarrek ontzat jo zuen: "Jende asko etorri da eta kooperatiba ugari hartu dute parte; behar asko dituzten pertsonak daude, gu baino behar gehiago dituen jende asko dago".

## ANTZUOLA

**Antzuolako herriaren aitortza Jose Luis Elkorori**

Jose Luis Elkorori enpresari eta politikariak Antzuolako herriaren aitortza jaso zuen urriaren 10ean. Herriari egindako ekarpena eskertu nahi izan zioten Elay enpresak eta Udalak; udaletxean izan zen ekitaldia; ondoan izan zuen Elkorori Mari Karmen Ayastuy emaztea: "Egindakoa biok batera egin dugu".



## BERGARA-ANTZUOLA

**Bidegorria eta kolektorea egiteko lankidetzaituna**

Antzuola eta Bergara bidegorriz lotzeko eta Antzuolako saneamendu kolektorearen azken fasea eraikitzeko lankidetzaituna sinatu zuten, urriaren 7an, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ura Agentziak eta Gipuzkoak Urak-ek. Asmoa da lanak 2025eko lehen hiruhilekoan hasia; aurrekontua 1.359.838 eurokoa da.



# MUJIKA

# HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



# Uste berri on!



**ARETXABALETA**

**Poloniako gazte topaketez gozaten**

Aretxabaletako zortzi gazte Poloniako Wroclaw hirian izan ziren, astebetez, Neska Gazteen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekimenetan parte hartzen. "Bizipenez beteta" itzuli ziren.

**ARETXABALETA**

**Kepa Errasti Gorroño** Aktorea



Aretxabaletako aktoreak antzerki kategoriako gizonetzko aktore onenaren Besarkada saria jaso zuen, *Posdatarik gabeko gutunak* obragatik: "Saria lankideen estimuaren seinale da".

**ARRASATE**

**Jai Zale taberna, dohaintzan Udalarari**

Gorripidea elkartearen jabetzakoa zen Jai Zale taberna Arrasateko Udalararena izan zedin, eskualdaketa sinatu zuten hilaren 8an. Gorripidearen eskaera izan zen Udalak proiektu sozialetarako bideratzea lokala.

**ARETXABALETA**

**Maren Lezeta** Futbol jokalaria



Realeko talde nagusierekin debutatu zuen aretxabaletarrak urriaren 19an, 19 urterekin. Atletico Madrilen aurka 1-0 galdu arren, ametsa bete zuen jokalaria gazteak.



**ELGETA-LEINTZ GATZAGA**

**Patxi Basauri eta Eusebio Villar alkate ohien heriotza**

31 urtez Elgetako alkate izandako Patxi Basauri urriaren 9an hil zen, 79 urte zituela; EAEn ez da izan inor alkatetzan horrenbeste urte egin duenik. 1979tik 2007ra izan zen alkate Basauri (EAJ). Bestalde, hilaren 14an hil zen 2007tik 2011ra Leintz Gatzagako alkate izan zen Eusebio Villar, 74 urte zituela.



**DEBAGOIENA**

**"Genozidioaren amaiera" aldarrikatu zuten**

"Palestinako genozidioaren amaiera" eskatzeko Gernika-Palestina Herri Ekimenetik udaletxeen aurrean elkartzeko deiarri erantzun zioten Euskal Herriko 178 herritan; tartean, Debagoienean. Elkarretaratzeak egin zituzten Arrasaten –argazkian–, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Antzuolan eta Elgetan.



**BERGARA**

**Danbakaren seigarren aldiaren hasiera**

Urriaren 25ean hasi zen, Bergarako Seminarixoan, Danbaka Musika Lehiaketaren seigarren edizioa. Lehen gau hartan, Arrasateko Korda Rota, Bergarako Ktarsia eta Sotoalde eta Oñatiko Malko –argazkian– izan ziren protagonista, eta Aretxabaletako DJ Joe Peaman izan zen artista gonbidatua, chill out gunean.



**ARRASATE**

**la 500 erretiratu, Adinekoen Martxak erakarrita**

Gipuzkoako adinekoen zentroetatik etorritako 500 bat kide batu ziren hilaren 19an Arrasaten egin zen Gipuzkoako Adinekoen Martxaren 33. edizioan. Gipuzkoako bederatzi bailaratako

erretiratu eta pentsiodunak elkartu ziren, denera, zazpi kilometroko ibilbidea egin eta, ondoren, Musakolako kiroldegian bazkaltzeko: "Oso gustura gaude antolakuntzarekin".

**ARRASATE**

**Udalatx mendizaleen omenezko gurutze barik esnatu zen**

1971ko urriaren 12an Udalatx-zaleek mendian hildako mendizaleen omenez jarritako gurutze barik esnatu zen Udalatx 2024ko urriaren 12an; Aiba! mendi mar-txa igaro zen egun hartan Udalatxetik. Ekintza ez zuen inork aldarrikatu, eta hurrengo egunetan zeresan handia eman zuen arrasatearren artean.





**TXANTXIKU**  
ELEKTRIZITATEA

Julen Uribeetxeberria Txintxurreta  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Urte  
berri  
on!



Kale barria 20 • Errekalde 8 • OÑATI • Tel.: 943 78 01 54 / 699 34 89 47



## ARRASATE

**17 Emakume kale berria**

Arrasateko historia berreskuratzeko ekimenen barruan, kale baten izena aldatu zuten hilaren 17an: Alfontso VIII kalea 17 Emakume kalea izatera pasatu zen, 1969an Auzo Lagun enpresa sortu zuten emakumeen lana aitortuz.

## ARAMAIO

**Sabin Salaberriren 'Ametsak' lana**

Sabin Salaberrri musikari eta konpositore aramaioarraren ibilbidea jasotzen duen *Ametsak* dokumentala aurkeztu zuten hilaren 17an Aramaioko kultura etxean. Ondoren, mahai-ingurua egin zuten.

## ARRASATE

**Zalduspe, autobus geltoki bozkatuena**

Arrasatearrek astebetetz izan zuten aukera autobus geltokia Zalduspen edo Laubiden nahi duten erabakitzeko. 4.268 herritarrek hartu zuten parte galdeketa eta Zalduspe izan zen aukera bozkatuena, 3.159 botorekin.

## ARRASATE

**Asun Agiriano** Liburuzaina

Arrasateko Udal Liburutegiko zuzendari Asun Agirianok Ibilbidearen Saria jaso zuen hilaren 16an, Kutxa Fundazioaren Literatura Sarien barruan. Mariasun Landa idazleak eman zion saria.



## BERGARA

**Zarzuela eta antzerki musikala, arrakastatsu**

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren *El huésped del sevillano* zarzuelak harrera ederra izan zuen Arrasateko Amaia antzokian. Bestalde, Bergarako Antzerki Musikala (BAM) elkartearen hamahirugarren ikuskizuna izan zen *Hamelingo txirularia*; lau emanaldi arrakastatsu egin zituzten, Seminarixoko sarrerak agortzeraino.



## DEBAGOIENA

**Indarkeria matxista: gizonei interpelazioa**

Azaroaren 25aren bueltan Debagoieneko herri guztietan egin ziren ekitaldiak, askotariko leloekin. Arrasaten *Ez bazara konponbidea arazoa zara* leloean egin zuten protesta, Seber Altuben. Diskurtsoan gizonezkoei zuzendu zitzaizkien, bereziki, indarkeria matxistaren askotariko formen aurrean jarrera aktiboagoa eskatzeko.



## BERGARA

**Athleticzaleen peñak 25 urte bete zituela ospatu zuten**

Athleticzaleen lagunartek 25 urte bete zituela-eta ekitaldia egin zuten hilaren 13an Artatse elkartearen; han izan ziren Leire Baños, Ane Elexpuru, Adama Boiro eta Alex Padilla jokalariek eta Andoni Goikoetxea jokalaria ohia. 60 bat lagunekin abiatu zuten taldea eta urtea 130 bat bazkiderekin amaitu zuten.

## ARRASATE

**Arrasateko Udalaren aitortza Emilia Larrea Saez de Adanari**

1978ko azaroaren 15ean Guardia Zibilak baserri ondoan tiroz hil zuen Emilia Saenz de Adanari aitortza egin zioten hilaren 10ean, udaletxean. Arrasateko Udalak 2016an hasi zuen indarkeriaren biktima izan diren arrasatearrei aitortza egiteko prozesua; tesuinguru horretan antolatatu zuten ekitaldi publikoa.



## ARRASATE

**Manifestazioa egin zuten Avanzako langileek**

Debagoiengan barrena eta Debagoienetik kanpora bus zerbitzua eskaintzen duen Avanza enpresako langileek hainbat protesta eta greba egin dituzte urtean zehar zerbitzua eta lan baldintzak hobetzea eskatzeko. Azaroaren 4an Musakolatik Zalduspeko geltokira egin zuten manifestazioa.

**BEHI-ALDE****ERKOP**

**BEHI-ALDE, KOOP. E.**  
Oleta-Aramaio (Araba)  
**Zuzenbide postala**  
44 pk  
20500 Arrasate

*urte berri on!*

Tel.: 945 45 01 00  
bulegoa@behialde.com





**BERGARA**

**Arnasetik lehiaketako sarien banaketa**

Hirugarren urtez antolatu zuten bideo sormen lehiaketa Arnasa Gara proiektua bultzatzen duten erakundeek: UEMAk, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak. Sariak Bergaran banatu zituzten, hilaren 28an.

**BERGARA**

**Paulo Azpiazu Harri-jasotzailea**

Hilaren 16an Abadiñon jokatu zen Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketa irabazi zuen Paulo Azpiazuk (Bergara, 1996): "Ez nuen uste txapel hau horren azkar etorriko zenik".



**ARAMAIO**

**Zundaketa arkeologikoak Barajuenen**

Dokumentu historikoen arabera, Aramaioi Barajuen auzoan zegoen Torralde Dorrea edo Gaztelua. Azaro hasieran zundaketak egin zituen Ondare Babesa elkarteak, arrasto arkeologikoak bilatzeko.

**OÑATI**

**Jon Umerez EHUko irakaslea**

Hilaren 26ko EHUko errektoretzako hauteskundeak Joxerramon Bengoetxeak irabazi zituen, botoen %63,63 eskuratuta. Bengoetxearen taldean dago Jon Umerez oñatiarra.



**DEBAGOIENA**

**Valentziako hondamendiari elkartasun uholdea**

DANA denboraleak Valentzian hondamendia eragin ostean, elkartasun uholdea heldu zen; askotariko materiala bidali zen bailarako ia herri guztietatik. Horretaz gain, asko izan ziren Valentziako herri kaltetuetan boluntario lanetan aritu ziren debagoiendarrak: batzuk, Valentzian bizi direnak; beste asko, hemendik hara joanda.



**BERGARA**

**Rikardo Arregi Saria, Wikilarien izenean**

Ander Bolibar bergararrak jaso zuen 2024ko Rikardo Arregi Komunikazioa Saileko saria, Euskal Wikilarien Kultura elkartearen izenean. *Ikusgela* izeneko proiektuarengatik jaso zuen saria, "hainbat gairen inguruko euskarazko bideo labur, erakargarri eta dibulgatiboak" ekoitzi eta jendearen esku uztearren.

**ARRASATE**

**Mondravemberrek 10 urte: ekitaldi berezia Amaia antzokian**


Prostatako minbiziaren aurkako Arrasateko taldeak ekitaldi berezi batekin ospatu zuen 10. urteurrena. Hilaren 16an Amaian ospatu zuten, eta, besteak beste, Mikel Urdangarin, Neomak, Etxepe –argazkian–, Sertx, Txorbela otxotea, Ttakun taldea, dantzariak, txistulariak eta ber-solariak izan ziren oholtzan.



**ARRASATE**

**Txatxilipurdik 30 urte, eta etorkizunari begira**

Erabiltzaileekin, eragileekin, langileekin eta herritarrekin ospatu zuen euskarazko aisialdia eskaintzen duen elkarteak 30. urteurrena, hilaren 14an. Atzera-begiratua egiteaz bat, etorkizunari begira ere jarri ziren. Orain arteko bidetik jarraitzeko, kolore laranja eta morea oinarri dituen irudi berria aurkeztu zuten.



UGARTE

ARROZTEGIA - ALTZARIAK

---

Proiektuak · Koltxoia  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

ARROZTEGIA

San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA

aroztegia@ugartearoztegia.com

Urte berri on!



## DEBAGOIENA

**Arberoa ikastolari elkartasuna**

Urrian sute baten ondorioz kaltetu zen Nafarroa Behereko Arberoa ikastolaren alde sosak batzeko ekimenak egin zituen Arizmendi ikastolak, Aretxabaletan, Arrasaten eta Eskoriatzan.

## OÑATI

**Migel Mari Guridi** Boluntarioa

Boluntariotza lanak aitzortzen dituen Oñatiko Pake Leku 2024 Saria jaso zuen, abenduaren 19an, Miguel Mari Guridi *Txome* musikari oñatiarrak, herrian hainbat elkartetan egindako lanagatik.



## ARRASATE

**Gurutzea berriro jartzeko eskaera**

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Udalatzeko gurutzea berreraikitzea eskatu zuten, EAJren, PSE-EEren eta PPren aldeko botoekin eta EH Bilduren eta Elkarrekin Podemosen kontrakoekin.

## ARRASATE

**Alberto Urretxo** Musikaria


Tronboi-jole arrasatearrak sortutako Euskadi Brass taldeak *10 urte* disko berria aurkeztu zuen JAMEn, abenduaren 13an, Arrasate Musikaleko ikasleen parte hartzearekin.



## DEBAGOIENA

**Avanzarekin ez jarraitzeko eskaria**

Arrasateko Zalduspeko bus geralekuan abenduaren 9an egindako agerraldian, Debagoieneko alkateek eskatu zioten Foru Aldundia-ri Avanza enpresarekin duen kontratua ez luzatzeko eta "zerbitzuan hobekuntzak" jasoko dituen kontratu berri bat onartzeko. Amaitzear da Diputazioaren eta Avanzaren arteko kontratua.



## ESKORIATZA

**'Eskoriatzako eta Gatzagako ipuiñek', kalean**

Eskoriatzako Matxingorri Taldeak hamalau kontakizun ez osatutako euskarazko ipuin-bilduma aurkeztu zuen, abenduaren 3an, Ibarraundi museoan. Testuekin eta ilustrazioekin osatuta, Eskoriatzako eta Gatzagako hainbat kondaira, istorio eta pasadizo biltzen ditu. Euskalkian eta batuan argitaratu zuten liburua.



## DEBAGOIENA

**Euskaraldia abian, 2025era begira**

Euskaraldiaren laugarren edizioa 2025eko maiatzaren 15etik 25era egingo bada ere, abenduan hasi ziren lehen prestakizunak; gehienak, Euskararen Egunarekin lotuta. Arrasaten Gozaldia egin zuten eta Euskararaldiaren hamaikakoa aurkeztu zuten. Bergaran, abiatze-saioa, udaletxean, Kike Amonarrizen hitzaldiarekin.



## DEBAGOIENA

**Ibarreko euskara elkarteak Tauparen sorreran izan ziren**

Euskaltzaleen Topaguneak hasiera berria irudikatu zuen, abenduaren 14an, Bilbon, eta izena ez ezik izana ere aldatu duela iragarri zuen, Euskal Herri osoko euskaltzaleak saretzeko helburuarekin. Ekitaldian debagoiendar ugari izan ziren, euskara elkarteetako ordezkariak gehienak.





# ilaia

## ILE APAINDEGIA




Kalebarren 1, behea ANTZUOLA  
 943 76 63 33  
 ilaia83@hotmail.com

Urte berri on!!





**OÑATI****Aixotu euskara taldea aurkeztu zuten**

Aixotu euskara taldea sortu zuten Oñatiko gaztetxean Euskararen Egunean, "euskara bultzatzeko eta herrian haren aldeko jarrera berpizteko". Oñatiko euskaltzale guztiak animatu zituzten taldera.

**OÑATI****Maider Arregi** Bertsolaria

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerdietako ordezkari debagoiendar bakarrak finala hatz puntekin ukitu zuen abenduaren 1ean Arrasateko saioan. Puntu batera geratu zen.

**ARRASATE****Akordeoi sari nagusia, Errusiara**

Vladimir Stupnikov errusiarra nagusitu zen, abenduaren 8an, Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan. Bakarkako sariari gainera, Akordeoi Ganbara Musikako Lehiaketako sari nagusia ere irabazi zuen.

**ELGETA****'Kaxilda', San Tomaseko erregina**

Arantzeta baserriko *Kaxilda* txerria izan zen Donostiako San Tomas Egunerako hautatu zuten txerria. 350 kiloko durok arrazako txerria, "kurioso nahiz kuxkuxero" bezala definitu zuen Peio Bilbao abeltzainak.

**DEBAGOIENA****Txapela bertsolari onenei Loidik eta Goikoleak**

Arantzazu Lodi aretxabaletarrak jarri zion txapela Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako irabazleari, Alaia Martini. Bestetik, Patxi Goikolea mondragoetarren ardura izan zen 25 urtez azpiko onenaren saria jaso zuen Aner Peritz Manterola *Euzkitze*-ri jartzea txapela. Illunben izan zen finala, 14an.

**OÑATI****Ulmaren Euskara Planaren 20. urteurrena**

Ulma Taldeak Arantzazuko Gandiaga Topagunean ospatu zuen, Euskararen Egunean, Euskara Planaren 20. urteurrena. Bi hamarkadako ibilbide "oparoen" landutakoa izan zuten hizpide, eta etorkizunera begira jartzeko tartea ere hartu zuten. Ibon Calvo presidentek gidatu zuen ekitaldia.

**ARETXABALETA-ESKORIATZA****Telefono-deiak egiteko, herriko dendetara**

*Guria erabili zeinke* kanpaina jarri zuten abian, abendu hasieran, Eskoriatza eta Aretxabaletan, bi herrietako kidez osatutako Altxa Burua taldeak sustatuta. Ekimenari esker, herrietako ehun establezimendu eta zerbitzu publiko baino gehiagotako telefonoa erabili ahalko dute haurrek eta nerabeek, beharra izanez gero.

**ARRASATE-OÑATI****Goikobaluren eta Ganbararen urteurrenak**

Arrasateko Goikobalu eta Goikobalu Txiki abesbatzek 35. eta 30. urteurrenak ospatu zituzten abenduaren 14an, San Frantzisko elizan kontzertu berezi eta jendetsua eginda. Bestetik, Oñatiko Ganbara Kantu Eskolaren 20 urteko ibilbidea errepasatu zuten, egun berean, Oñatiko Santa Ana antzokian.

**BERGARA****Ikurrina, Nafarroako bandera eta azalpen-plaka, batera**

Ikurrina eta Nafarroako bandera daude Bergarako San Martin plazan, eta horren zergatia azaltzen duen plaka jarri zuten ondoan, horren zergatia zein den jakin dezaten. Gorka Artola alkateak eta Rafa Santxez Nabarraldeko kideak hartu zuten parte abenduaren 3an egin zen ekitaldi instituzionalean.



**VITALDENT** | 35<sup>URTE</sup>  
ZURE AHOA DENA DA

**OSASUNA, DIRUA ETA MAITASUNA  
ESKATZEN BADITUZU... DENA DAUKAGU.**

**ARRASATE**  
Otalora Lizentziaduna kalea 1  
943 06 03 22



**Urte berri on!**

Gabon hauetan, Vitaldent-ek zure maiteen aho-hortzetako osasuna zaintzen laguntzen dizu  
**%15eko deskontuarekin zure tratamenduan\***  
eta **24 hilabeterainoko finantzaketarekin\*\***

Zure maiteen osasunaz arduratzea ere maitasun-ekintza bat delako.

\* 24/12/01etik 24/12/31ra bitarteko promozio baldioduna, biak barne. Onartutako aurrekontuaren zenbateko osoari aplikatuko zaio. 250 €-tik gorako tratamenduetarako. Ezin zaie beste deskontu eta sustapen batzuei metatu. Kontsultatu zure tratamenduaren tarifik Vitaldent klinikan. Medikuen agindupeko tratamenduak. CS10715 Osasun Erregistroa.\*\* 24 hilabetetan 1.800 €-ko zenbatekoa finantzatzeko adibidea. % 2ko formalizazio-komisioa: 36 €, lehenengo kuotan ordaindu beharrekoak. 111 €-ko lehen kuota eta 75 €-ko 23 kuota. TIN % 0,0 UTB % 1,96. Kredituaren kostua guztira: 36 €. Zor den zenbatekoa guztira eta epeko prezioa guztira: 1.836 €. Eskurako erosketaren prezioa: 1.800 €. Vitaldentek diruz lagundutako interesak. Banco Cetelem SAUK eskaintako finantzaketa, 2024/12/31ra arte baliozkoa. RPS 255-19



## Maria Ubarretxena

### Jaurlaritza berriaren bozeramailea

**A**urpegi aldaketa izan da aurten Eusko Jaurlaritzan. Imanol Pradalesek ordezkatu du Iñigo Urkullu, eta, EAJk PSE-EErekin batera osatu duen gobernuan, Maria Ubarretxena (Urretxu, 1980) Arrasateko alkate ohia da Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu sailburu berria. Ekainean hartu zuen kargua, gainerako sailburuekin batera. Jaurlaritzaren bozeramailea ere bada Ubarretxena. Gipuzkoako Bide Azpiegituretako diputatua izan da ekainera arte.

#### Gaztagile onena, oñatiarra

Bestetik, Irati Usandizaga oñatiarra ere nabarmendu da. Lekarozko Kortari gaztandegiko arduradunetako bat da, eta gaztandegi horrek Euskal Herriko gazta lehiaketarik inportanteenak irabazi ditu: Ordiziako Txapeldun Saria eta Urrezko Gazta; Nafarroako Gazta Lehiaketa; Euskal Herriko Gazta Onenaren Saria eta Esneki Sari Nagusia.



## Idoia Mujika

### Hizkuntza zerbitzuak enpresei

**M**ondragon Lingua eta Alecop bateratzen dituen Mlakoop kooperatiba-enpresak Gipuzkoako Bazkudearen 2024ko Zerbitzu Enpresa Saria irabazi zuen apirilean. Idoia Mujika zuzendari nagusiak jaso zuen saria. Mondragon Korporazioari lotutako kooperatibak -320 pertsonako lantaldea- bere jardura merkatu global eta nazioartekotu baan garatzen du.

#### Ikerlan eta Zerbimek

Mondragon Taldeko Ikerlan ere nabarmendu da aurten. 50 urte bete ditu, eta bazkideekin eta bazkide izandakoekin ospatu du Jon Etxeberriak zuzentzen duen lantaldea. Korporazioa bera ere protagonista izan da 2024an: Pello Rodriguezek ordezkatu du Iñigo Uzin taldeko presidente karguan. Bestalde, Alain Vivasen Arrasateko Zerbimek enpresak jaso du Confebasken Gipuzkoako prestakuntza dualeko enpresa onenaren saria.

**Zutaz arduratzen gara**

Audi Q2      VW Caddy      VW T-Roc      Skoda Kodiaq      Seat Arona

*Urte berri on!*

**UDALAITZ S.L.**  
Gipuzkoa etorbidea 36  
20500 Arrasate

**943 71 18 70**  
[udalaitz.vasataldea.eus](http://udalaitz.vasataldea.eus)



Irailan egin zuen debuta profesional mailan 23 urteko pilotari arrasatearrak, Aspe enpresarekin; etxean, Uarkapen. Aurreko mendearen erdialdean bizi izan zuen Arrasatek, *Zurdo*-rekin eta, sasoi loriatsua, eta lekukoa hartzera etorri da Ander Murua.

#### Borrokan, futbolean, atletismoa

Aurten nabarmendu den beste kirolari arrasatear bi: Europako kickboxing txapeldun izan zen Maialen Gallardo (1998), martxoan, Frantzia; Yaman Mjahed Diamante (2002) borrokalariak, ostera, WOW FCko lehenengo postua eskuratu zuen martxoan, Madrilen. Bestalde, Elene Guridi oñatiarrak (2002) eta Maren Lezeta aretxabaletarrak (2005) Realeko lehen taldean debuta egin dute aurten, eta Malen Osa (2002) mendi lasterkaria hirugarren geratu da Golden Trail Series proban. Malen Ruiz de Azuak, azkenik, erretiroa iragarri zuen uztailean, urteetako palmares loriatsuaren ostean.



## Ander Murua

### Pilotari arrasatear bat, goian



## Ruper Ordorika

### Abadia Saria oñatiarrarendako

Ruper Ordorikak (Oñati, 1956) 1980an argitaratu zuen *Hautsi da anphora*, euskal kantagintza berritu zuen abesti-bilduma –iaz, zuzenean berriro grabatu eta argitaratu zuen–. Harrezkero, oparoa izan da uzta. Gipuzkoako Foru Aldundiak, aurten Abadia Saria emanda, "lau hamarkadaz euskarazko sorkuntzaren eta kulturaren alde egindako lana eta ekarpen joria" aitortu dio. Irailan jaso zuen saria, Tabakalera.

#### Zinema, antzerkia eta bertsoak

Beste hainbat kultur gile debagoiendar nabarmendu dira 2024an: Aitor Arregik bi estreinaldi izan ditu, *Balenciaga* telesaila Disney plataforman, urtarrilean, eta *Marco* zinema-aretoetan, azaroan; Kepa Errastik Besarkada Saria jaso zuen irailan; Manex Agirre, Arabako Bertso Txapelketan, finalean, martxoan, buruz burukoan izan zen; Maider Arregi Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalaren atariraino heldu zen eta Arantzazu Loidik finaleko irabazleari txapela jarri zion.

# TELAETXE

## Fabrikako prezioak

Elgeta bidea,  
gasolindegitik  
300 metrora  
• BERGARA •  
Tel.: 943 76 39 40 / 41

Astelehenetik ostiralera  
10:00etatik 13:00etara  
eta  
16:00etatik 20:00etara zabalik

Larunbatetan  
10:00etatik 13:00etara

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK

*Urte berri on!*



# Lotsa bandoz aldatzea, buruko gaitzei aurre egitea eta herrigintza indartzea

Horiek eta gehiago nabarmendu dituzte bi orriotan; adibidez, "espazio partekatuen eraikuntza positiboan" aurrera egin behar dela, eta munduan "beldurra" ari duela, "kontrol demokratikorik gabeko indarrekin"



**AINHOA LARRAÑAGA ELORZA**  
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA ETA IKERLARIA

## Tradiziotik adikziora

**2**024. urtea amaitzear gauden honetan, bai nigan izan duen eraginagatik eta baita oro har gizartean izaten ari den eraginagatik, buru osasunean eta bizi dugun pobretze prozesuan jarri nahiko nuke arreta.

Antsietate eta depresio kasuek nabarmen egin dute gora Euskal Autonomia Erkidegoan azken urteotan; bereziki, emakumeen eta gazteen kasuan.

Buruko gaitzak gora egitearen arrazoi arteen hainbat hipotesi daude mahai gainean, eta lerro labur hauek ez dira nahikoak arrazoi bakoitza ondo aletu eta garatzeko. Gizarte solidoan bizi ginenean, tradizioak markatzen zituen gure bizitzetako gidalerroak; orain, berriz, hainbat adituk diote tradizioen funtzioa adikzioek hartu dutela. Tradizioak behin eta berriz errepikatzen diren ekintzak dira. Adikzioak ere ez al dira barnean dugun hutsunea betetzeko erabiltzen ditugun akzioen errepikapena? Alkoholarekiko, substantziekiko, kirolarekiko, sare sozialekiko, sexuarekiko eta jokoarekiko adikzioak dira egun bizi dugun hutsunea betetzeko erabiltzen ditugun akuilu arriskutsuak.

Bizitzaren garestitzeak, lan baldintzen prekarizazioak, etxebizitzaren arazoak... guztiongan eragiten duten arren, gazteak dira etorkizun hurbilertainean paradigma horren fase ilunena biziko dutenak, eta, egoera honen aurrean, ezinbestekoa da egungo bizi baldintzak aldatzea.



**MIKEL IRIZAR**  
JUBILATUA

## Helburuetan handira jokatzeko ordua

**D**ebagoienean energiaren gaia azpimarratuko dut. D2030 ekimenaren baitan gai hori garatzeko Ernamuina taldean partaide izan naiz, Elorrio ordezkatzuz; eta, arazoak arazo, gaitasun handia ikusi dut lankidetzarako, bideak urratzeko, interes orokorra bilatzeko eta aurrera egiteko.

Helburuetan handira jokatzeko ordua etorri da eta Debagoiena bidea markatzen ari da. Beste behin.

Euskal Herrian, baretasuna zait deigarri. EAEn hegemonia jokoan egonda ere, liskarrik apenas. Akordio handirik ere ez, oraingoz. Ikusteko dago Pradalesen eta EAJren bilakaera. Nafarroan egonkortzen ari da eskuin espainazalearen alternatiba, ohiko bihurtzen ezohiko ituna. Iparraldean ere handituz doa abertzaleen eragina.

Munduan beldurra ari du. Kontrol demokratikorik gabeko indarrak nagusi dira, hautetsiak haien esanetara daude, eta hondamendien ardura ez du inork hartzen. Muski, Bezosi eta enparauei aurre egiteko, herritarron energia bildu eta biderkatu beharrean gaude. Herrigintza indartzeko garaiak datoz.

**INPLANTOLOGIA ESPERIENTZIA  
HANDIKO AHOLKU-EMAILEAK GARA  
3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN  
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABAETA • TEL.: 943 79 93 55

**Murillo Garajea**  
Auto konponketak orokorrean

*Ongi etorri 2025*

Leizeaga 4 - BERGARA  
Tel.: 943 76 13 84





**ELENA LAKA**  
ABOKATUA

## 2024ko lotsak

**L**otsak bandoz aldatu behar duela egin dute aldarri Gisele Pelicoteren buru tentek eta duintasunez betetako begirakuneak epaitegiko joan-etorrietan.

Bandoa bakarra dela badakigu; bandoaren osaera, ostera, anitza. Aurten lotsapekoak: euskal letretako fraide errespetagarria, musika teknikari ezagun gipuzkoarra, pertsonaren eta pertsonaiaren arteko marra lauso zeukan ezkerreko politikari espainiarra, eta aurkezle eta bakarrizketari oñatiarra. Batu eta jarrai. Lotsak eragiten dituen gertaerengatiko justizia eskatzeko lekua, berriz, mugitu egin da, epaitegietatik sare sozialetara, gune seguru direlakoan – legearen muga-mugan, diot nik-. Zer ote dauka espazio segurutik sare pribatuak jabeetako bat Amerika berriz handi egitekoan badabil; handi eta matxista, derragan garbi. Eskumaranzko biraketa bete-betean, keinuak geratzen zaizkigu komunitateko aldarrietatik, behintzat, kolore gorriak ateratzeari ekin.

Eta, bitartean, 40.000 pertsona baino gehiago hilda Gazan eta 800etik gora Mediterraneo zeharkatu nahian. Aurtengo lotsetako batzuk.



Buruko gaitzek nabarmen egin dute gora Euskal Autonomia Erkidegoan.



**JUAN JOSE ALVAREZ**  
NAZIOARTEKO ZUZENBIDE PRIBATUKO KATEDRADUNA

## Gizartearen elementu bultzatzaileak

**T**estuinguru politiko eta sozial konplexu batek markatutako urtea bizi izan dugu, faktore geostrategiko, ekonomiko eta sozioekonomiko katartikoen batuketa batekin, eta horiek garamatzate etxeko edo tokiko arazo edo distortsio txikiak erlatibizatzen. Hala ere, zailtasunek elkartu egin behar gaituzte, eta modu koordinatuan egin behar diegu aurre.

Espazio partekatuen eraikuntza positiboan aurrera egin behar dugu, dauden erroka guztiak gainditzeko. Aurten aurrera egin dugu gizarte-kohesioan, gure bizi-mailari eta enpleguei zentzuz eustea lortu dugu, eta prestakuntzaren aldeko apustuak inoiz baino konstanteagoa eta indartsuagoa izan behar du, etorkizun partekatuen bermea baita, baldin eta ausardia, ezagutza eta bultzada partekatua batzen baditugu maila politikoan eta sozialean.

Debagoieneko enpresak egonkorragoak eta iraunkorragoak izatea lortu behar da. Gure enpresak eta haien jarduera dira gure gizartearen benetako elementu bultzatzaileak. Gure ekonomia ezinbestekoa da zerbitzu publikoei eusteko, horiek baitira eta izango baitira, zalantzarik gabe, gure gizarte-ongizateko sistemaren oinarria. Ez dugu ahaztu behar aberastasuna banatzeko lehendabizi sortu egin behar dela.

Bergara ●  
**metagra**  
México ● Group

**Gabon zorientsuak eta  
urte berri on!**



# Berrikuntza eta talentua, ezinbesteko gako etorkizuna bermatzeko

Denak Ameriketako Estatu Batuei begira daude, Trumpek zer egingo duen zain, horrek eragina izango duelako munduko ekonomian; hala ere, garrantzitsuena da hemengo enpresek "euren nortasunari eustea"



**IÑAKI CASAS**  
KOMO KORPORAZIOKO KOMUNIKAZIO AHOLKULARIA

## Lan, lan eta lan, eta gero, lan

**E**z dago helbururik izerdirik bota gabe lor daitekeenik. Lana beltz egiteko urteak ditugu aurretik; izan ere, oso bide luzea geratzen zaigu aurretik. Horretarako, azalekoa alde batera utzi, eta ezinbestekoa denari eutsi behar diogu.

Munduko ekonomiaren hazkundea %3,3koa izango da 2025ean, Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) arabera. Txina %4,5 haziko da eta, isilik eta zaratarik atera gabe, Indiak %6tik gorako hazkundea izango duela espero da. Eta, bitartean, Europa, hazkunde horietatik urrun. Euskal Autonomia Erkidegoak aurtan %1,9ko hazkundearekin ixtea aurreikusit dute, eta 2025ari begira, apur bat handiagoarekin: %2,1.

Testuinguru horretan, errezeta –iraganean hazkundea eman ziguna– sustraitzea da; alegia, gure nortasunari eustea, kontzertu ekonomikoa zuzentzea eta gure industriari laguntza areagotzea.

Aldagai horiek, bakarrak izan gabe, estrategikoak dira, eta oso kontuan hartu behar dira herri gisa garena ez ahazteko; haren etorkizunean eta bilakaeran eragin beharra dago, etorkizunari begira.



**IDURRE ALBIZU**  
GARAIAKO NEGOZIO GARAPENERAKO ARDURADUNA

## Enpresa berritzaileak ditugu

**2**024. urtea bukatzean da, eta ohitura da garai honetan urteko errepaso egitea.

Ariketa horretan, urte hasieratik hasi eta kronologikoki urtea jarraitzea da arruntena, baina, kasu honetan, urtea bukatzeko dugun albiste estimulatzaile eta gertuko batekin hasiko nintzateke. Abenduaren 13an sinatu berri dugu Garaia Parke Teknologikora gehituko den proiektu berriaren partzelaren salmenta.

Azkenaldian hainbeste irakurri eta entzuten ari garen CPD edo Datuen Kudeaketarako Zentro bat kokatuko da gurean. Enpresaren izena ADI Data Center Euskadi da eta bazkideak Eusko Jaurlaritza, Teknei, Dominion, Euskaltel, Gertek, Kutxabank, Iberdrola, Mondragon, Seed Capital Bizkaia eta Seed Gipuzkoa izango dira.

Berrikuntzari dagokionez, Debagoienak espazio nabarmena izaten jarraitzen du; izan ere, bertako enpresen %42 dira berritzaileak. Inguruko %35eko batez bestekoaren gainetik dago Debagoienekoa.

Laster ikusiko ditugu enpresek datorren urtera begira duten aurreikuspen orokorra eta konfiantza-tasaren ikerketaren emaitza. 2024. urteko enpresen konfiantza-tasa %55,6an itxiko da.



## Zorionak

ETA URTE BERRI ON!

Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97 ELGETA [f](#) ilea peluqueria/ileapaindegia

- **Ibargarai 24**  
Tel.: 943 76 70 29
- Super Amaran ere bai:  
**San Lorentzo pol. 9**  
**Amillaga 18**  
Tel.: 943 76 99 34  
BERGARA

**Ongi etorri 2025**







Donald Trumpi begira dago mundua.



MIKEL LEZAMIZ / SOZIOLOGOA

### Urte bukaera, eta 2025a...

**E**konomiari dagokionez ez da urte txarra izan Debagoienari eta Euskal Herriari orokorki begira, baina Europa sufritzen ari da, Ukrainaren eta Errusiaren arteko gerragatik eta Israelen gerragatik Palestinarekin eta inguruko herrialdeekin. Europako merkatua guretzako garrantzitsuena da, eta ez dabil ondo, Barne Produktu Gordina %1 bat bakarrik igotzen ari baita azken hogeitertean, eta ez dago inbertsio produktiborik, Ameriketako Estatu Batuekin (AEB) eta Asiarekin konparatuz gero. Munduan pisu ekonomikoa eta politikoa galtzen ari da Europa; AEBak eta Txina, berriz, pisu handiagoa hartzen ari dira.

Euskal Herriaren garapen ekonomikoa industrian oinarrituta dago, %24 Autonomia Erkidegoan eta %32 Nafarroan, baina beherantz doa. Eta automobilgintza oso garrantzitsua denez gure industriaren barruan, aurten arazo gehiago sortu dira, sektoreko enpresa handiak ez dabiltzalako inbertitzen eta urtea arazoekin bukatzen ari direlako.

2025eko lehen hiruhilekoa ez da hobeto joango, Donald Trumpen Gobernuak martxan jarri arte eta nondik nora joko duen ikusi arte AEBetako arantzelekin eta kanpo politikekin. Baina ezin dugu itxaropena galdu, eta urte hobea lortuko dugu guztiontzat.



ALAITZ OSA ARABOOLAZA

KRUCEN ENPRESAKO BAZKIDE ETA SORTZAILEKIDEA

### Ekonomiari buruz zer esan...

**E**z naiz ekonomista, salmentetan aditua baizik. Eta badakit gure enpresek ondo eta asko saltzeko duten gaitasunak inpaktu positiboa daukala gure inguruan, eragin zuzena daukala gure ekonomian.

Euskal Herrirako 2025erako aurreikuspen positiboak daudela ematen du; betiere, inbertsio-mailak eta industria-politikek lagunduko badute.

Borborrean daude gai hauek: trantsizio energetikoa, eskulan kualifikatuaren eskasia, biztanleriaren zahartzea eta teknologia berriak.

Talentuarena da enpresen burukomin handienetako bat. Ez omen dago talentu nahikoa. Gaurko gazteek konpromiso txikia omen daukate. Talentua kanpotik ekarri beharra dagoela entzuten da. Bailara elkartetik antolatu genuen jardunaldi batera Anton Costas katedraduna gonbidatu genuen gai horren inguruan hitz egiteko; argi esan zuen talentua egon badagoela, pertsona guztiok daukagula talentua, baina bilatu eta prestatu egin behar dugula.

Teknologia da beste gaietako bat; badirudi teknologia dela arazo guztien irtenbide.

Bi gai horien inguruko nire iritzia: talentua badago, noski; hori bai, prestatu egin behar dugu, eta egokitu garai berrietara. Teknologiari dagokionez, uste dut teknologia berez ez dela helburu bat, gure erronkak burutzen laguntzeko bide bat baino.

**itesa**

*Urte berri on!*

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

INDUSTRIAS **FEGAR, S.A.**



www.fegar.com

*Urte berri on!*



# Kirolari profesional bilakatzea izan da emakumezkoen aldarria

Urteko erreposoa egiteko orduan, iritzi-emalleek emakumezkoak ekarri dituzte euren lerroetara, lortu dituzten emaitzengatik eta jarduera batzuetan profesionalismora iritsi direlako; baina asko dago oraindik egiteko



**AINHIZE BARRAINKUA**  
TXIRRINDULARI OHIA

## Emakumezko kirolariei aitormena

**E**z dakit inoiz ahots goran esan diegan kuadrillako neskei, izebei, amari... zeinen harro eta pozik sentiarazten nauten ariketa fisikoa egiten ikusten ditudanean. Denbora hori euren buruei eskaintzen, patriarkatuak ezarritako mugak zeharkatzen, espero ez zituzten mila gauza lortzen. Kirolean ongizatea aurkitzen. Zeuen buruarengan sinesten. Zaila egiten zait azaltzen.... Eta gertuko ez ditudan baina han eta hemen gurutzatzen ditudan emakume\* korrikalari, mendizale, eskalatzaile, txirrindulari, igerilari eta abarri. Bidea urratzen hasi zirenei, eta horretan dihardutenei.

Baina txirrindularitzan jarri nahiko nuke arreta, gertuen daukadan kirol jarduera da eta. Eta hor Usoa Ostolaza Laboral Kutxako txirrindularia omendu nahiko nuke; izugarritzko maila erakutsi du aurten, eta munduko onenen artean ibili da. Izugarri pozten nau ametsak betetzen dabilela ikusteak. Baina ez hura bakarrik; emakumezko ziklistez osatutako proiektu hori nabarmendu nahi dut. Izan ere, gauza handiak lor daitezke baliabideak daudenean. Hala, emakumezkoen txirrindularitzan baliabide horiek jarri dituztenean –gutxieneko soldatak bermatu, esaterako– emaitzak berehala iritsi dira. Bada, kirolean (ere) emakumeok badugu gure lekua, eta ez dugu etsiko merezi dugun dena eduki arte.



**JOKIN ETXEBARRIA**  
KIROL-KAZETARIA

## Bideak, pausoz pauso

**A**rrasatek pilotari handiak izan ditu bere historian zehar: Mondragones, Arriaran anaiak, Bolinaga... Baina orain 45 urte izan zen profesionaletan azken debuta. Ander Muruari 23 urterekin iritsi zaio aukera. Askoren ustez, berandu samar, baina bidea pausoz pauso egin behar izaten da. Frontoi morea egunero betetzen duten eskolako umeez badaukate dagoeneko ispilu bat.


92-93ko denboraldian ikusi genituen aurreneko emakumezkoen lau euskal talde saskibaloian lehen mailan jokatzeko. Bide hari jarraiki, geroago etorri dira beste batzuk, eta, bigarrenengo historian, lau euskal talde ditugu berriz ere maila gorenean. Horietako talde batekin, IDKrekin, akordioa sinatu berri du Ointzek, eta maila guztietan eskailera eder bat osatu dute: IDK-Iraurgi-Ointxe. Hiru maila nagusietan, hiru talde gipuzkoar. Harrapazan!

Aurtengoa urte olinpikoa izan da. Markak eta izarrek trumilka; nire arreta, baina, Simon Biles-en irribarrera joan da. Hiru urrezko eta bi zilarrezko domina, eta hori guztia, hainbat gimnastak –hura, haietako bat– sufritutako sexu-abusuak salatu eta gero, FBI bera ere jakean jarri arte. Berriki, Ana Peleteirok ere bere historia kontatu ahal izan du. Izan ere, bidea pausoz pauso egin ahal izateko, batzuek bidea zabaldu behar dute.



**Zorionak**  
Eta Urte Berri On!  
2025

**ibili**   
ibilimenaje.com



**iBARRALDE**  
Administrazio zerbitzuak SL

- Etxe agentzia
- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak
- Finken administrazio zerbitzua

25.068 kolegiatu  
zenbakia

Ibargarai 30 BERGARA  
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64

**Urte berri on!**



**ARATZ LOSADA**

'MATX'-EKO EDUKI-ARDURADUNA

## Taupada bete betean

**G**ezurra dirudi. Baina nola joan da horren azkar urtea? Gelditu ere egin gabe ibili garen seinale. Eta nire egunerokoaren momentu asko eta asko kirolari loturikoak izan direnez, erraza daukat. Goazen bada, urteko laburpenarekin.

Gertuenetik hasita, ezin aipatu gabe utzi Debagoiengan, eta, konkretuki, Oñatin, arrastoa utzi digun Aloña Mendiren 75. urteurrena. Egitaraua eta ekitaldiak antolatu dituen taldeko kide naizen aldetik, harrotasunez baina harrokeriarik gabe, ozen oihukatu nahi nuke: aupa Aloña, tra-ka-tra! Hau da kluba eta herria daukaguna! Ikaragarria izan da hori guztiori bizi ahal izatea. Emozioak borborka dauzkat oraindik. Eskerrik asko, Oñati!

Nazio mailako albisteekin jarraituz, Euskal Herrian, Athleticen Kopa txapelketaren bueltan Bilbo inguruetan antolatu zen ospakizun-jai erraldoia datorkit burura. Futbolak asko mugitzen duela esaten badut ez nuke ezer berririk esango, baina horrelakorik ikusiko nuenik?

Nazioartearekin amaituz, urte olimpikoa izan denez, Parisko hitzordua nabarmenduko nuke. Eta, kirol emaitzez harago, diziplina minoritarioek eskaintzen dizkiguten emozio biziko bihozkadak gogoratu eta kirolari gutxietsi haien aldeko aldarria eginez agurtuko naiz. Ea, bada, taupadak jaisten zaizkidan!

**OLATZ IGARTUA**

BESAIDE MENDI ELKARTEKO PRESIDENTEA

## Gazteak erakartzea da erronka

**M**endi elkarte bat ordezkaten dudan neurrian konturatzen naiz gauzak zelan ari diren aldatzen, eta zelan egokitu behar ditugun, baita mendi elkarteak ere, aldaketa horietara. Izan ere, elkarte lehengo erara kudeatuta, ez ditugu gazteak erakartzen. Batetik, erreleboa behar da, eta, bestetik, gazteak erakartzeko, mendi elkartetik egiten diren ekimenek ere eurei bideratutakoak izan behar dute. Kontuan hartuta, hori bai, mendi elkarte batek mendia gustatzen zaigunon elkarguneak izaten jarraitu behar duela.

Euskal Herri mailan 2024 honetan Atxondoko eskalatzaile Ainhize Belarrek egindako 9a+ graduako igoera *-Iñi Ameriketan-* nabarmendu nahi dut. 18 urteko neska gazte bat da, eta igoera horrekin mundu mailako onenen parean jarri da *-historian bost neska lortu dute zailtasun gradu hori eskalatzea-*. Hala, gaur egun kirolean erreferenteak lasterketetan nagusitzen diren horiek izanda, txapelketetatik kanpora eta isiltasunean halako kirol erronka bat gainditzea izugarria iruditzen zait.

Amaitzeko, nazioartean errekonozimendua duen Jordi Corominas ekarriko dut tarte honetara. Urrezko pioleta eman diote mendizale horri, eta garai bateko mendizaletasuna aldarrikatzen du: mendira abentura bila joatea, eta oinarrizko materialarekin.



Ainhize Belar Valdegovian (8c) eskalatzen.

RPS: 88/23



**ESTELLA**  
FARMAZIA-ORTOPEDIA SEKZ.

Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63



*Gabon zoriontsuak eta urte berri on!*



**ANDRA MARI**  
ASESORIA / AHOLKULARITZA

**Fiskala**  
**Kontablea**  
**Juridikoa eta laborala**



*Zorionak eta urte berri on!*

Araba ibilbidea 20A, behea • Aretxabaleta • 943 79 29 26 • joseluis@asesoriaandramari.com



# 'Mainstream' sortzaileez harago, herrigintzako izar txikien distira handia

Liburu guztiak ez dira Durangoko Azokara heltzen, nahiz eta irakurriak izan. Agertoki handiak ez dira musikari eta antzezle guztiendako, nahiz eta herrietako aretoak bete. Hemen ere artista handi txiki pila daude



**MARIA OSES**  
IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

## Hormigoiaz harago

**H**alakoak idaztea proposatzen didatenean beti etortzen zait neska gazte sortzailearen kuota betetzen aritzearen mamua. Aukera baliatuta, aurten neska eta disidente gazteek sortutako kalitatea azpimarratu nahiko nuke.

Itzulpengintzarekin hasiko naiz, deformazio profesionalagatik edo: Katakrakek poesia-bilduma bat abiatu du aurten, itzultzaile gazteek itzultitako poeta gazteena. Juana Doloresen *Girgileria* itzuli du Mainer Ramirezek, eta Mohammed el-Kurden Rifqa Eider Beobidek. Poesia gordin eta politikoa, itzultzaile fin eta politizatuen eskutik. Iraun beza bildumak. Saiakeran, aipatzekoa Leire Lakastak euskarara ekarritako Annie Ernauxen *Idazketa labana bat da* (Katakarak).

Literatur egitasmo kolektiboez orain: Pomada bandak *Maitaleen hiztegi baterako zirriborroa* ikuskizuna taularatu du; Behe bandak, 2. *OMEN* alea argitaratu; Mejillon Tigre eta Lokatz Loreak kolektiboak Euskadi Irratian aritu dira euren testuak erreziatzen. Batzuk aipatzearen.

Debagoienean, Oihana Aranaren *Berria*-ko zutabeen oso *fan*; horrez gain, 2025erako dei bat eskualde honetako sortzaileei, MU eta hormigoia baino gehiago garelara sinetsita: elkartu gaitzen, hirietatik kanpo ere egin daiteke literatura alternatiboa.



**IMANOL GALLEGO**  
KAZETARIA ETA ZINEMAN ADITUA

## Izarren distira bueltatzen denean

**N**or ez da udako gau ilun batean izarrei begira geratu, eta begien aurrean distira egiten duten izar horiek betiko egongo direla pentsatu? Bada, izarrak itzali ere egiten dira, eta zinema-izarrei ere antzerako zerbait gertatzen zaie.

Aurten, ia ahaztuak genituen izar batzuen itzulera gertatu da. 90eko hamarkadan kamera geldoan korrika egiten zuen Pamela Anderson zinema-aretoetara itzuli da. Sex-symbol iruditik urundu eta talentuz beteriko lan batek itzuli du pantailara. Demi Mooreren kasua ere antzerakoa da, eta adinak zinema-izarrengan duen presioa salatuz ikusi dugu zinemetan. Zinemaren historiaren lerrotan galduta zeuden bi aktore horien lanak zeresan handia eman du, eta urte hasierako sari banaketa galetan protagonista izango dira, dudarik gabe. Horrenbesteko arrakastarik lortu ez duen itzulera Francis Ford Coppolaren *Megalopolis* izan da, zuzendari estatubatuarren lanak ez baitu harrera berorik izan, eta proiektu madarikatutzat hartu da.

Gurera etorrita, moriartitarren itzulera bikoitzak euskal zinema suspertu du, *Balenciaga* telesaila eta *Marco* obra nabarmenekin. 2025ean ere egongo dira itzulera. Aitor Arregiren moriartiarrek *Maspalomas* estreinatuko dute eta Asier Altuna *Kixi*-ren *Karme*le iritsiko da aretoetara.



**Aurten, Eneritz Larrea argazkilaria elgetarrak egin du urte berria zoriontzeko Goienaren mezurako artelana: Aniztasunak daukan aberastasuna.**

**Hauxe da urte berrirako Eneritzen desioa:**

"Udazkenean zuhaitzek oso paisaia polita eskaintzen digute.

Zuhaitz bakoitza kolore batekoa izan arren, guztien artean harmonia eder bat osatzen dute. Gure gizartean aniztasunak eskaintzen digun aberastasuna bezala".

## 2025 on guztioi!



**Aniztasunak daukan aberastasuna**

Argazkiaren egilea: Eneritz Larrea

Foku-distantzia: 200 mm

Esposizioa: 1/200 segundo; f/16; Iso 250

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA




**VENE HERRERO**

ARTE DRAMATIKOKO DANTZERTIKO IKASKETABURUA

## Formazioan dago gakoa

**T**xalo bero bat gure antzokietan egon diren konpainiei eta Kepa Errasti aretxabaletarrari, gizonetako aktore onenaren Besarkada saria jaso duelako, baina aipamen berezia egin nahi diet antzerki-talde amateurrei. Bergara Antzerki Musikala Elkarte (BAM) eta Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa ditut gogoan.

Arrasateko Doke Antzerki Taldeak 22 urte ditu, eta hala jaso du Josemari Velez de Mendizabal kideak liburu baten aurten. Bere mantentzea eta bilakaera prestakuntzari eman zaion garrantziaren ondorio ere bada; beraz, ezin da ahaztu, bertatik sortutako Doke antzerki eskola.

Garrantzitsua da bokazio goiztiarrak detektatzeko eta garatzeko hezkuntza-sistema bat, hala erabakitzen bada, gero goi-mailako ikasketak egiteko. Gaur egun, Euskal Herriko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Mailako Eskola (Dantzerti) daukagu Bilbon. Bertan Debagoieneko ikasleak daude, eta aurretik ere izan dira, adibidez, Yune Nogueiras bergarra, arrakasta handiarekin orain bere karrera garatzen ari dena.

Garrantzitsua da hegan egin ahal izatea, baina garrantzitsua da, halaber, herri bakoitzean lan-sare bat eskaintzea. Aktore prestatuak, eszenako lekuetan jarraituko dutenak.

Topa horregatik!



Seigarren Danbaka Musika Lehiaketa jokatu da aurten.


**IKER BARANDIARAN**

KAZETARIA ETA MUSIKAN ADITUA

## Ospatu dezagun musika!

**M**usikaren jatorrizko helburua ospatzekoa, konpartitzekoa, batzekoa da. Hala erakusten du, adibidez, aurten 6. edizioa bete duen Danbaka lehiaketak. Gozatu dute eta dugu agertoki gainean, azpian eta etxean. Eta finala jokatzear da!

Batze horren zentzuan izan dira aurten hitzordu bereziak musikarekin lotuta, gure artean ez dauden gogoan: Arrasaten Ripekoen eta 80ko hamarkadako belaunaldikoen omenezkoa, Bergaran *Popi*-ren omenezko bertsio jai gogoangarria eta Arrasateko Mikel Lezea musikaria omentzeko ospakizun hunkigarria, besteak beste.

Errespetuzkoa eta beharrezkoa da nondik gatozen jakitea, baina aurrera ere begiratu behar da: hala, esanguratsua da, esaterako, Durangoko Azokaren bezperan orriotan Debagoieneko musika ekoizpenaren lagin aberatsa aurkitzea denetariko estiloekin; beteranoez gain, berriagoak gailentzen dira. Shot! grabazio estudio aitzindariak atek itxi baditu ere, badu erreleboa hainbat herritan. Gainera, Mondra&Roll moduko jaialdi puntualenez gain, bada egunerokoan musika ospatzea errazten diguten Bergarako Kartzela Zaharra, Kooltur Ostegunak, Oñatiko Gaztetxea eta Gaztelekua, Inkernu eta beste ekimen ezezagunago batzuk ere. Ospatu dezagun musika egunero!

*Elena Elkorok 2025. urterako hoberena opa dizue elgetar guztioi!*

*Urte berri on!*



MITARTE 1  
ARETXABALETA  
943 77 13 79  
636 02 39 96

**A R E D E R  
A R R A N D E G I A**

*Zonionak eta urte berri on!*





**ANDONI ALTZELAI**  
HERRITARRA ARRASATE



Medikuntza eta zientzia izaten ari diren aurrerapena eta hazkundera nabarmenduko nuke, sekulakoa da: protesiak, ebakuntzak, transplanteak...



Gerrak besterik ez dugu munduan: Errusiaren eta Ukrainaren artekoa, Israelen eta Palestinaren artekoa... Egia esan, oso tristea da.



**MAITE URZAIN**  
HERRITARRA ARRASATE



Amaidolua elkarteak bere bide hasi zuen, solasaldiak eginez, nork bere burua zaintzeko espazioak sortuz eta elkar laguntzeko lehen taldea sortuz.



Dolua bakardadean bizi duten pertsona asko daude oraindik. Suizidioak eta ezusteko beste heriotza batzuek isilpekoak eta tabuak izaten jarraitzen dute.



**GAIZKA ARANEGI**  
HERRITARRA ARRASATE



Urteotako utzikeriaren ostean, herriko kirol instalazioak hobetzen hasi dira, eta elkarte txikiengan esperantza sortu da; ea hurrengoak diren.



Israelen genozidioak jarraitzen du Palestina txikitzen, Libanora eta Siriara hedatzen hasita; eta herrialde gehienak, ezikiusiarena egiten.



**MAIDER URRUTIA**  
LOHIXAK TALDEA ARETXABAETA



Borroka askatzaileen indartzea eta goraldia. Gure herria(k) eta bizitzak bizigarriak eta duinak izateko, hainbat eragile lanean aritu gara.



Jarrera erreakzionarioen gorakada eta hainbat formatan lurreratzen diren erasoak. Biolentziak hamaika aurpegi dituela argi ikusi dugu aurten.



**JUAN TOMAS ZABALA**  
BASOTXO ELKARTEA ARETXABAETA



Jendearen konpromisoa eta pazientzia. Jarduerak aurrera egin izana –kantu taldeko kide eta bazkide kopuruak gora–, leku egokirik izan ez arren.



Egoitza berria asko luzatzea, ia urtebete, eta ziurgabetasuna eta haserre eragin, horrek dakartzan ondorioekin; jendea kanpora joatea, esaterako.



**IÑAKI AGIRIANO**  
HERRITARRA ESKORITZA



Bisitariak erakarri eta tokiko sormena sustatzen duten euskal kultura ekitaldiak, hala nola musika, antzerki, arte eta literatur jarduerak.



Gazan, Zisjordanian eta Libanon gertatzen ari diren tragediak. Israeli nahi duen moduan jarduteko aukera ematen diote, gainera.



**ARANE ZUBIA**  
HERRITARRA ESKORITZA



Neska gazte taldetxo batek Eskoritzako Gorosarri Dantza Taldea berrartu egin dugula, euskal dantzak Eskoritzan berpizteko asmoz.



Mundu mailan eta baita gure inguruan ere azkenaldian izan diren egoera matxisten kopuruak ugari izan dira, eta kezagarria da.



**SONIA URDICIAIN**  
HERRITARRA LEINTZ GATZAGA



Gatzagan geroz eta zerbitzu publiko gehiago izateak poztu egiten nau: ile-apaindegia, podologo zerbitzua, fisioa... Pertsona nagusien onurarako.



Emakumeen aurkako eraso kopuruak ez dira jaisten. Aurten ere emakume asko hil dituzte, eta egoerari buelta eman behar diogu.



**ANDERE ARRIOLABENGOA**  
BERTSOLARIA ARAMAIO



Gure herriak daukan bizitza ikaragarria da. Musikari, dantzari, bertsolari, kantari, feminista, mendizale, ekologista...



Urteko gertakaririk mingarriena Palestinako sarraskia izan da, eta da. Genozidio baten lehen lerroko ikusle bihurtu gara.



**MIGUEL LOITI**  
ARAMAIOKO LAGUNKOIA ARAMAIO



Pandemia ostean, azkenean, adinekoen harreman sozialak ireki egin dira, gehitu eta mugitu. Lortu dugu jendea alaitzea eta pozik ikustea.



Aramaion aurten 24 heriotza, behintzat, izan ditugu, eta, herriko biztanle kopurua mantendu eta oreka egon dadin, datu kezagarria da.



**ION**  
ZERBITZUAK

**Urte**  
**berri on!!!**

**Mantentze lan integralak**  
**Konponketa txikiak eta handiak**

**24 orduko zerbitzua**

**658 99 59 12**







**AITZIBER PLAZAOLA**  
ELIKAENEAKO DINAMIZATZAILEA **BERGARA**



Azoka biziberritzeko Erikaenea sortzea. Azokak gainbeheran daude, eta herriko plaza gisa ulertu eta elikadura erdigunean kokatzeari eutsi zaio.



Arrasateko Ereindajan dendan abenduan egindako lapurreta. Irabazi asmorik gabeko proiektuentzat halako erasoek kostu handia eragiten dute.



**JULEN ARANBURU**  
BKE PILOTA SAILA **BERGARA**



Ezbeharretan jendea nola mobilizatzen den ikusteak poztu egiten nau, norbanakoarengan pentsatzea alde batera uzten ari garela erakusten baitu.



Eraso sexistak. Neska-mutikoak berdintasunean hezten saiatzen gara, baina albisteek erakusten digute zerbait gaizki egiten ari garela.



**IZASKUN LARRAÑAGA**  
LACOR-IBILI TALDEA **BERGARA**



Aurten, Lacor-en 75. urteurren-ospakizunak aipatuko nituzke. 75 urtez gure eskualdean errotuta, eta beste hainbeste izan daitezela!



Munduan orokortzen ari diren gatazka geopolitikoak eta, ondorioz, zibilek jasaten dituzten kalte krudelak gaur egun onartezinak dira.



**IRATI LIZARRALDE**  
GAZTE MUGIMENDUKO KIDEA **ANTZUOLA**



Berrikuntzek ekarritako aurrerapenak minbizian, diagnostiko goiztiarrekin eta tratamendu berriekin biziraupena handitzeko.



Guggenheim Urdaibain eraikitzeak dakartzan kalteak: natur baliabideen suntsipena, biodibertsitatearen arriskua eta turistifikazioa areagotzea.



**LANDER DOMINGUEZ**  
ALARDEKO BURUZAGIA **ANTZUOLA**



Teknologia berrien eboluzioak bizitzako edozein alorretan ekar ditzakeen onurak. Bosgarren industria-iraultzaren atarian gaude.



Eskuin muturreko ideiak nola zabaltzen ari diren eta nola iraganean gaizki ikusita zeuden ideiak normaltasunez hartzen diren.



**RAMON MARTIN**  
ARTXIBOZAINA **ONATI**



Gure sare hurbilak –izan familia, auzoa, edo herria, adibidez– indarrez betetzen gaitu. Urtero hutsik egiten ez duen fenomeno da hori.



Europa hartzen ari den norabidea, duen jarrera. Nora doa Europa? Pertsonen okerrena askatzen ari da? Kezkatzen nauen egoera da.



**BILMA SOTO**  
DENDARIA **ONATI**



Arazoak arazo, jendeak aurrera egiteko duen indarra eta gogoia; sekulako erresilientzia du jendeak, harritzekoa da.



Azken urteetan prezioek izan duten gorakada. Eros ahalmena murrizteaz gain, jendearen umorean ere eragina izan du.



**GERMAN MIRASSOU**  
OSTALARIA **ONATI**



Gustatzen zaizkit futbol txapelketak eta sortzen duten giroa, eta aurten, ederra izan da Amerika kopa Argentinak irabaztea.



Gerrek, orokorrean, mina sortzen didate. Palestinakoa eta Siriakoa jarraitu ditut, bereziki; urteko txarrena gerrak izan dira.



**AINARA BELAMENDIA ELKORU**  
AMANTALAK TALDE FEMINISTA **ELGETA**



Amantalak talde feminista, Udalarekin elkarlanean, jai giroko erasoen aurkako protokolo bat egiten ari gara. Itxaropena ematen du.



Urtea ez da amaitu eta 2024an matxismoak zazpi emakume erail ditu Euskal Herrian. Gaur egun oraindik ere horrela egotea oso triste da.



**GARI ANDUEZA PORCEL**  
GAZTE ASANBLADA **ELGETA**



Aurten ere bere jardunari eutsi dio Elgetako Gazte Asanbladak; hurrengo urtean horrela jarraituz gero, gaitz erdi.



Harro dabil gaur egun zuzengabekeria... Olatu erreakzionarioa European zehar hedatu da, eta, aurre egin ezean, ez ote gaituen denok itoko...



Centro Odontológico  
**SILVANA CAVIGLIA**

Urte berri on! 2025ean ere elkar  
ikusten jarraituko dugu.

Simon Arrieta plaza 3-2B • Tel.: 943 76 38 54 • Bergara



# Ez utzi galdara edozeinen eskuetan



Profesional  
ziurtatu eta  
homologatuak



Mantentze  
zerbitzua



43 urteko  
esperientzia

Torrebaso industrialdea 14 , Eskoriatza  
Tel.: 943 79 89 97  
[www.etxe-lan.com](http://www.etxe-lan.com)  
[satelectrodomesticos@etxe-lan.com](mailto:satelectrodomesticos@etxe-lan.com)



etxe  
-lan